



Azoka ekologikoa Zerainen



Hegazti eguna
Seguran

Goierriko
Gurutze Gorria

Eugenio
Irastorza
23 urte
kartzelan

Kilometroak
2003 gero eta
gertuago

ANTZIZAR KIROLDEGIKO BARNE KIROLAK
KIROLZALE SUTSUAK





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

www.anzizar.com



EUROLAN 4x4-k zerbitzu berria ireki du Goierrirako: ANZIZAR



THE LAND ROVER EXPERIENCE

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Sorluze, Doltza Barandiaran, Ekain Muxika, Aimar Maiz, Zelaí Amenabarro, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Karlos Aseginolaza, Goierriko Gurutze Gorria eta Maite Lasa.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldi-karian adieraztako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Irailak 21:

Azoka ekologikoa Zerainen

IX. azoka ekologikoa ospatuko da irailaren 21ean Zerainen. Goizeko 9etatik 2etara, hainbat eta hainbat produktu ekologiko erosteko eta dastatzeko aukera izango da: barazkiak, fruta, barazki kontserbak, ogia, gazta, eztia, ardoa, arrautzak, olioia, esnea, sendabelarrak, mermelada eta gozoak, ontziratutako elikagaiak... Guztiak ere, produkzio ekologikorako arauen arabera ekoiztutakoak. Pintxo ekologikoak dastatzeko aukera ere izango da: barazki, gazta, alga eta tofu pintxoak.

Goierriko artisautzak ere izango du lekua, zeramika, makilak, tailak, zumea, gantxiloa, artilea, kandelak...

Erakustaldi berezi bat ere izango da: antzinako eran, tolaean, sagarraren muztioa aterako da. Ondoren, basotan eta botilatan eskainiko da bertaratutako artean.

Azokaren ondoren, osagai ekologikoz prestatutako bazkaria izango da 200 lagunentzat. Bazkalondan, JoxAnton Artze-

ren poesia emanaldia izango da. Bazkari-ko txartelak erreserbatzeko bi telefono zenbaki daude aukeran: 943 80 15 05 (Mandioa) eta 943 76 14 47 (Biolur).

Arratsalde partean, 5,30etatik aurrera, lehengo erako erromeria izango da, Xapre trikitilariarekin eta Zeraingo ttun-ttun joleekin. Erroskilak, sagardoa pitxarretan, txapliguak... guztia abemariakoa jo arte.

Azoka baino gehiago

Biolur eta Zerain Fundazioa antolatzaileek beste hainbat ikuskizun ere prestatuko dituzte: gozogintza, kandela eta zeramika tailerrak; lixiba aintzinako erara; linoaren prozesua; errementaritza artesanalak; tola-rea; hazi ekologikoen erakusketa; erlezaintza erakusketa... eta Zerain herriak berak eskaintzen dituen beste hamaika aukera: museo etnografikoa, diaporama, 1711. urteko kartzela, Larraondo zerrategi hidraulikoa, Aizpeako meategiak, Jasokundeko amaren eliza, eta abar.

Goierritarra Goierri-kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Jon Jauregi diputatu Madrilen

1995etik ekainaren 14ra arte Beasaingo alkatea izan den Jon Jauregi (EAJ), Madrilgo Diputatuen Kongresuko diputatua izango da. Gipuzkoako Foru Aldundi-ko Ahaldu Nagusia den Jose Juan Gonzalez de Txabarriren lekua hartu du.



Ander Geresta Espainiaren esku

Frantziak, Gabiriako euskal preso, Espainiaren esku utzi zuen irailaren 15ean, aldi baterako. Hainbat kale erasotan parte hartzeagatik epaituko dute Espainian. Jendarmeen aurkako tiroketa batean parte hartzeagatik dago preso Frantzian Ander Geresta, 2000ko maiatzetik.

Urruzuno sariketan sarituak

Eusko Jauraritzak antolatzen duen Urruzuno literatur lehiaketan bi goierritar izan ditugu sarituak: Jon Muñoa zeraindarra eta Oier Zurutuza ataundarra. Gales eta Eskoziara joan dira bidaian irabazle guztiak elkarrekin.

Iker Zubeldia bigarren Lizardi sarian

Zegamako bertsolaria txapeldunorde izan zen Zarauzko Lizardi txapelketan. Ekaitz Goikoetxea beasaindarrek ere txapelketan parte hartu zuen.

Jose Mari Jauregi eta 'Bizkor' txakurra irabazle

Arabako artzain txakur-
ren txapelketa Lazka-
oko Jose Mari Jauregi
eta 'Bizkor' txakurra
irabazi zuten irailaren
6an Murgian.

Ordiziako Gazta
Lehiaketan azken urte-
etan 5 aurrenekotan ari
dira sailkatzen Joxe
Mari Jauregiaren gaz-
tak. Aurtengoan biga-
rren postua lortu du
jauregiaren gaztak.



Karmele Muruaren gazta 3. Legazpin

Segurako Karmele Muruaren gazta 3. izan zen, irailaren 7an Legazpin jokatu zen Gipuzkoako Gazta Txapelketan.

III. Josetxo Imaz memoriala

Irailaren 28an jokatu da III. Josetxo Imaz korrikaldia. 10 kilometroko ibilbidea egin beharko dute korrikalariak, Ordiziako Altamira estadiotik abiatu eta Beasainen eta Lazkaon barrena, leku berean amaitzeko. Helduek goizeko 10,30etan izango dute irteerako ordua.

Dena den, aurretik, goizeko 9,30etan, eskolumeen tartea izango da.

Lasterketan parte hartu nahi dutenek bi aukera dituzte: aurrez izena ematea Bikuña Sport dendan eta Beasaingo, Lazkao-ko, Ataungo, Idiazabalgo eta Ordiziako kiroldegietan; edo eta egunean bertan, Ordiziako Majori kiroldegian bertan izena ematea. Izena aurrez ematen dutenek, 5 euro ordaindu beharko dituzte eta egunean bertan egiten dutenek, 7 euro. Eskolumeek ikastetxean bertan egin beharko dute izen ematea. Txindoki atletismo taldeak emakumezkoek deialdi berezia egin nahi die, proba honetan parte hartzeko.

Edozein motatako informazioa nahi dela hona bi telefono zenbaki: 676735073 (Anjel) - 650183828 (Joseba).



Omenaldia Txato Caballerori eta Irantz Eigureni

Lasterketa hasi aurretik, omenaldia eskainiko zaie otsailean aurostripuan hil ziren Txato Caballero eta Irantz Eigureni.

Nazioarteko sega txapelketan suitsarrak nagusi

Arrakastaz jokatu zen nazioarteko sega txapelketa Seguran. Bere inguruan antolatutako ospakizunek ere erantzun ona jaso zuten. Txapelketari dagokionean, suitsarrak izan ziren nagusi, bai gizonezkoetan eta bai emakumezkoetan. Goierriko segalariei dagokionean, emakumezkoetan, Aloña Jauregi 11. izan zen eta Aloña Galarraga 21.. Gizonezkoetan, Xabier Mendizabal 22. izan zen, M.M. Jauregi 34. eta Ikutz Garmendia, 50..

Irriki futbol eskolaren denboraldi hasiera urriaren 1ean

Urriaren 1ean hasiko du denboraldi berria Irriki futbol eskolak. Irailaren 30era arte dago bertan izena emateko aukera. 100 ikaslerentzako muga dago eta dagoeneko 70 ikaslek eman dute izena. Beraz, oraindik ere izena eman nahi duenak, Pintiren telefono zenbakia dago aukeran, 14:00etatik 20:00etara: 655707900. Matrikula 30 euro kostatuko da eta ondoren, hileko, beste 30 euro ordaindu beharko dira. Irriki futbol eskolakoei dei berezia egiten die neskei ere.


Entrenamentu egunak eta orduak hauek dira: 1994 eta 1997 urte bitartean jaiotakoek, asteazkenetan, 18:00etatik 19:30era; 1992 eta 1993an jaiotakoek, ostiraletan, 18:00etatik 19:30era.

Pottoka eta Martinez tabernek 5.100 euro ordainduta Gazta irabazlea Ordizian gelditu da

Pascual Lopez de Urvalderen gazta erdia, Ordizian gelditu da, 5.100 euroren truke. Ordizia bertako bi tabernetako nagusiek, Pottoka eta Martinez, gogor lehiatu zuten gazta erdia herrian bertan gelditzeko. Orain, bezeroen artean zozketatu nahi dute. Lehenengo aldia da gazta irabazlea Ordizian gelditzen dela.



Aitor Urreta Pottokako nagusia eta Xabier Martinez, Martinezekoa. Eskuineko argazkian Pascual Lopez de Uralde gazta lehiaketako irabazlea, Alejandra Iturrioz alkatearekin, saria jasotzen.



"Gazta herrian geratzea nahi genuen eta ordaindu beharrekia ordaintzeko prest geunden, nahiz eta azkenean uste baino dezente gorago joan zitzaigun", dio Xabier Martinezek. Helburu hori lortzeko Aitor eta Xabierrek bizkarrak ondo zainduta zituzten hainbat hornitzailearen laguntza hitzartua baitzuten: Errota-Haundi okindegia, Comercial Hostelera del Norte, Exclusivas Mardu, Frigicoll, Cianco, Ugalde edariak eta Fronton jatetxea.

Bereganatu duten gazta erdi horretatik laurden bat laguntzaileen artean dastatu dute eta beste laurdena, bi zatitan egin eta taberna bakoitzean bana zozketatuko dute. Bezeroen artean doan banatuko dituzte txartelak eta zozketa urriaren 8an, asteazkenez egingo dute.

Ordiziarren artean arrakasta handia izan du bi tabernen ekimenak. "Frontoian bertan nabari zen jendea urduri jarri zela herritarrek enkantean sartu ginenean. Gu ere oso urduri jarri ginen. Tentsio handiko uneak izan ziren, oso polita eta oso txarra. Lanetik korrika joan eta inoiz egin gabeko lehia horretan sartzea oso berezia izan zen, ez dakigu gehiago eskaini bazuten zer egingo genukeen", diote ordiziarrek.

Gazta enkantean hartzeko erabakia nahiko isilpean eman zuten. Beraien etxekoei ere ez zien ezer esan eta ondorenean harriduraz hartu zuten.

Aurtengoa azkenekoa izango den galderari irribarez erantzun die biek. "Estres handiegia izan da aurtengoa", aitortu dute.

Sari ugari

Eguraldia lagun izan zen aurturaren Ordiziako azokan. Aurreko eguneko euria egin bazuen ere, irailaren 10ean, ateri egon zen, eguzkia lagun zela. Giro ona nagusitu zen Ordizian eta kaleak jendez gainezka egon ziren.

Lehiaketetan kalitatezko produktuak izan ziren nagusi. Horrelakoetan gertatzen den bezala, sari ugari banatu ziren. Jarraian laburpentxo bat:

Gazta lehiaketa: Pascual Lopez de Uralde (Larrea).

Asteroko azokako baserritarren arteko saria: Montes (Ibarra).

Fruta lehiaketa: Kontxi Izagirre (Antzuola).

Barazki lehiaketa: Tomas Larrañaga (Antzuola).

Euskal oiloaren lehiaketa: Iñaki Zabala (Urretxu).

Pirenaika arrazako Gipuzkoako txapelketa: 12-18 hilabetekoetan, Prontxio Urkia (Idiazabal); 18-24 hilabetekoetan, Pedro Katarain (Idiazabal); 24-30 hilabetekoetan, Pedro Katarain (Idiazabal); 2 urte eta erdi eta 3 urte eta erdikoetan, Pedro Katarain (Idiazabal); 3 urte eta erdi eta 5 urtekoetan, Antonio Agirre-barrena (Irun); 5 eta 8 urtekoetan, Pedro Katarain (Idiazabal); 8 urtetik gorakoetan, Iñarre azpikoa baserria. Aberekin saria, Pedro Katarain (Idiazabal); ganadurik politenaren saria, Pedro Katarain (Idiazabal).

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
943 88 72 76

Aurtengo udak erakusten diguna

Aurtengo udan jasan dugun bero eta lehorteak, jende askori gaizki pasa araziz gain, landarediari ere eragin dio. Toki askotan ikus daiteke, lur mehe eta harritsuetan batik bat, landare asko ihartu egin dela. Horren arrazoi eta ondorioei buruz idatzi nahi nituzke ondorengo lerroak.

Landareek jaiotzen diren leku beran ematen dute bere bizia, ezin dira lekuz mugitu. Animalia gehienek giro desegokia dutenean (hotza, beroa, bustia, lehorra, janari falta, arriskua, ...) horretaz babesteko aukera dute: zuloetan edo lur azpian sartuz, itzalera joanaz, erreka bilatuz, migrazioak eginaz eta abar. Landareek ez dute horrelako aukerarik. Naturaren bolada onak eta txarrak dauden lekuan jasan behar dituzte dauzkaten baliabideak erabiliz. Honek esan nahi du toki bakoitzean dauden landareek gai izan behar direla bertan ematen diren baldintzak jasateko (temperatura, euri erregimena, lurraren emankortasuna, intsolazio maila, haizearen indarra eta abar) eta baldintza hauetan bizitzeko gai ez dena hil egiten da.

Uda honetan beroa pasa dugu eta berdin gertatu zaie edozein lekutan dauden landareei. Hauek eguzkiaren indar gogorarekin, temperatura altuekin eta ur faltarekin oso gaizki pasa dute, eguteretan, toki harritsuetan eta, orokorrean, lur mehe eta lehorretan batik bat. Hostoetatik lurruntzen zen ura sustraietatik jaso zezaketena baino gehiago zen eta horren aurrean, landareak ez deshidratatzeko, hosto eta fruitu asko bota beharra izan dute. Horregatik ikusi ditugu hainbeste fruitu eta hosto lurtean garaia baino askoz ere lehenago. Landarearen estrategia bat da irauteko, ez hiltzeko. Gehienak datorren udaberrian berriro bizirik jarraituko dute. Aurtengoa urte txar bat izango zen. Baina beste asko hil egingo dira.

Toki lehor eta eguzkitsuenetan garbi ikusi da zuhaitz batzuk beste batzuk baino hobeto iraun dutela. Artea eta haritza nahasi zeuden leku batzuetan ikusi dugu nola haritz gehienak lehorte egiten ziren, arteak nahiko ongi jasaten

zuten bitartean. Artea irabazle irten da eta leku horretako jaun da jabe izango da ondorenean, ez du haritzaren konpetentziarik izango. Horrela sortzen dira artadiak eta berez klima mediterraniarrekoak diren landaredi motak Goierri aldean. Nahikoa da inguru batean urte askotatik behin horrelako lehorte eta beroa izatea klima horretara ohitutako landaredia nagusitzeko, inguruan dagoen landareki atlantikoak ez baitu hori jasaten. Selektio naturalak funtzionatu egin du.

Klimaren muturreko pasadizoak, bero edo hotz izugarriak edota lehorte apartekoak adibidez, erabat baldintzatzen dute leku bakoitzean bizi daitekeen landaredia eta horregatik Goierri mailan, nahiz eta landaredi atlantikoak eta euro-siberiarra (hariztiak, pagadiak, haltzadiak) izan zabalduena, beste zen-

bait komunitate ikus ditzakegu, artadiak kare-haitzezko eguteretan, ameztia lur hareatsu eta eguzkitsuetan eta mendi gorennetako landare komunitate alpetarrak, kasu. Berezko landareek, beste edozein bizidunek baino hobeto, oso ongi erakusten digute inguru bakoitzean dagoen mikroklima, lurzorua- ren ezaugarriaz gain, eta mendia ongi ezagutu nahi duenarentzat oso interesgarria da landareak ezagutu eta hauen banaketaz jabetzea.

Landareek, mugitu ezin direnez, lekuan jasan behar dituzte bertan gertatzen diren eguraldiaren gora-behera guztiak eta landarediak, urteetan zehar gertatutakoaren ondorioa denez, ongi erakusten digu mendi bazter bakoitzaren baldintzen berri

Karlos Aseginolaza

Kotxerik gabeko eguna

Gizarteak eskatzen duen ongizate-maila lortzeko beharrezkoa da garraio-sistema eraginkor eta jasangarri bat. Bainan gaur eguneko garraioaren egoera hobetzeko hiru arazori aurre egin behar zaie, kongestioari, segurtasun-faltari eta ingurumen-inpaktuari.

Euskadin 1.000 biztanleko 400 kotxe daukagu eta bertako bidai guztien %80 ibilgailu pribatuetan egiten dira; 1990-2000 bitartean auto kopurua %32 igo zen. Honek kale eta errepideen kongestioa ekarri du.

Segurtasunari buruz, berriz, hor daukagu errepideetako istripuetan hildako eta elbarri geratutakoen zenbakiak. Ezin ahaztu atal honetan errepideetatik garratzen diren merkantzia arriskutsuek sor ditzaketen hondamendiak.

Ingurumenari dagokionez, trafikoa da hiriguneetako aire-kutsaduraren, zarataren eta bizi kalitate-galeraren errudun nagusia. Adibidez, Londresen jende gehiago hiltzen da kutsaduraren eraginez trafiko-istripuz baino. Asma izeneko gaixotasunaren gorakada aire-kutsadurarekin lotzen da batez ere. Gainera, autotzako azpiegiturek lursail handiak okupatzen dituzte.

Esandakotik zera ondorioztatu daiteke, daukagun garraio-sistema desegokia dela, eraginkortasun gutxikoa eta jasanezina. Eta zein irtenbide daude? Bada, besteak beste, garraio publikoaren aldeko apostu garbia egitea, hau da, trenaren eta autobusaren lehiakortasuna hobetzea eta horiek erabiltzea bidaiatzeko. Batek baino gehiagok pentsa dezake ez dagoela alde handirik gutako batek kotea erabiltze edo ez erabiltzearen artean. Bada, oker dago horrela pentsatzen duena, gutako bat eta beste bat eta beste bat eta, asko gara eta. Hondar-pila handiak hondar-alez egiten dira. Gutako bakoitzaren konpromezua behar-beharrezkoa da. Eman zure kotxeari atsedena gutxienez datorren irailaren 22an, Europan ospatzen den kotxerik gabeko egunean. Guztion onurarako da eta.

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN IX. AZOKA

Azoka baino gehiago



IRAILAK 21
ZERAIN

9:00etatik 14:00etara azoka
17:30etik 19:00ak jo arte erromeria
Egun osoz: erakusketa eta tailerrak

ZERAIN PARKE KULTURALA



- Herri Museoa, Larraondo Zerrategia, Aizpeako Meategiak, Kartzela.
- HARIZTI-ERDI ATERPETXEA
- MANDIOA DENDA: herriko produktuak, artisautza
- INFORMAZIO BULEGOA: urte osoan zabalik

Herriko Plaza z/g Tel: 943 801 505 Faxa: 943 801 606 E-mail: mandio@rebestb.es

ANTOLATZEN DUTE:



ZERAIN
DEZAGUN
FUNDATZIOA

2003-2004 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza:

EUSKALDUNTZEKO maila guztiak, ALFABETATZEA, HIZKUTZA ESKAHIZUNAK eta EGA.

Erritmoa:


Irailaren 15etik ekainaren 22ra
Astean 10 ordu
Astean 8 ordu
Astean 4 ordu

Matrikulatzeko epea:

Irailaren 1etik 19ra.

Bulego ordutegia:

Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00



oporren ostean indarra beharko duzu... euskara beti!

Garai honetan indarra behar duzu. Baina euskara beti. Horregatik zure behar profesionalak, familiarak, kulturalak egokitzen den euskara eskaintzen dizugu eta gainera...

MATRIKULA DOAN ERE IZAN DEZAKEZU!

Bete ezazu kupoi hau zure datu pertsonalekin eta bidal egiguzu edo utz ezazu gertuen daukazu Udak Euskarategian.

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskarategiak.net

2003-2004 ikasturteko MATRIKULAREN zozketa: 2003ko irailaren 29an.

BEASAINgo Udak Euskarategia: Lomazko San Martin plaza, 7/g-20200 BEASAIN
Tel: 943 02 81 00 zuzendaritza@beasain.net



Izena:
Abizena:
Aukeraturako eskaintza:
Tel:

MAKINA ERROGATZA



Lan bertikalak S.L.

Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak
Pintura
Teilatuak
Tximiniak

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN

ARMAZOIA+
KRISTALA
NAGUSIENTZAT

50€ tik aurrera

eta kristal
progresiboekin

150€ tik aurrera

Eskaintza baliagarria sarrera berrietarak 15.000€tik 12.000€tik

MULTIOPTICAS -en

ARMAZOIA+
KRISTALA*
UMEENTZAT

55€ gatik bakarrik

* Kristal sendo organikoa
Lentia zuriendako 16 esfera 12 zilindro

bonardi haizea
ARMAZOIAK

49€ gatik bakarrik

Multi-
Eskaintzak

bonardi ARMAZOIAK

32€ gatik bakarrik

Eskaintza baliagarria 2003/09/15etik 2003/10/31ra, biak barne.



R.P.S. Nº 164/99 I.L.G.

J.M. Barandiaran Enp. • Tel. 943 88 99 88 • **ORDIZIA**

Sustraiez Blai jaialdiak 3. ekitaldia du urriaren 17 eta 18an

Munduko kultura desberdinen topagunea Goierriin

Itsasondon ezarriko den karpa erraldoia mundu zabaleko musiken topagunea izango da urriaren 17 eta 18an. Sustraiez Blai jaialdiaren 3. edizioa berrikuntzekin dator, 10 egunetan zehar hainbat kultur ekitaldi izango baitira. Antolakuntzako Josetxo, Txisku, Egoitz eta Danik eman digute beraien asmoen berri.

- Zer da Sustraiez Blai?

- 2001 urte hasieran Itsasondoko udalak jaien barruan kulturen arteko topaleku izango zen kontzertua antolatzeari proposatu zigun. Bi urtetan antolatu ditugun Sustraiez Blai jaialdiekin musikaren bidez, gure kultura eta munduko kultura desberdinak bateratu ditugu. Estilo eta sustrai desberdinetako musikariak izan dira: rumba, regae, son eusko-kubatarra, flamenkoa, afrikar perkusioa txalapartarekin, ska...

Aurreko bi ekitaldiek izandako arrakastak helburu zabalagoak izatea ekarri ditu. Musikaz gain kultur jarduera gehiago gehitu nahi izan dizkiogu aurreko bi urteetako kontzertuari: zine emanaldiak, erakusketak, hitzaldiak, tailerrak... Sustraiez Blaiak

entitate juridikoa du orain eta bere ekitaldiak Goierriko hainbat herrietan antolatuko ditu 10 egunetan zehar.

- Zer nolako ekitaldiak izango dira?

- Nagusia Itsasondon ezarriko dugun karpán, urriaren 17-18ko aste-buruan izango den musika jaialdia izango da. Horrez gain, Beasainen zine emanaldia, Barrenan erakusketa, Igartza jauregian kontzertua, musika instrumenturen baten hastapen ikastaroa...

- Kontzertuak Itsasondon izango dira, zergatik?

- Kultur aktibitate nagusiak beti hiriburu edo herri handietan antolatzen dira. Herri txikiak kultur zirkuituetatik kanpo geratzen dira. Itsasondok lehen urtetik bultzatu du jaialdi hau, bai antolaketa aldetik, baita diru aldetik ere lagunduz. Lortzeak lan handia eman badigu ere karpa erraldoia jarriko dugu jaialdiari gorputza emanez eta aurreko bi urteetan gurekin izan dugun euriari aurre eginez.

- Nondik aterako duzue hau dena antolatzeko dirua?

- Kontzertua dohainik izatea nahi genuke, baina, ez da posible izan. Guk bertatik ez dugu sosik ateratzen, borondate hutsez ari gara lanean.



Hasieran hainbat enpresa, Goieki eta Goiturri gure proiektua aurkeztu genien, baina, deneri ideia interesgarria iruditu bazitzaie ere inork ez gaitu diruz lagundu. Beasain, Ordizia eta Itsasondoko udalek diru-laguntza eman digute, baina, bakoitzak bere herrian antolatuko diren ekitaldientzat bakarrik. Guk jaialdia 'Goierriko jaialdia' bezala definitzen dugu, inork kontzeptu hori bereganatu ez duen arren.

Ekitaldi nagusia Itsasondoko delako kontutuan harturik, udal txiki batek ezin ditu honelako gastuak bere gain hartu. Hori dela eta, dirua ateratzeko errifak saldu, jaietan txosnak jarri, kamisetak atera ditugu eta Diputazioak eman digun dirua gehituz aurrekontuaren erdia osatu dugu. Sarrerekin eta bertan jarriko dugun tabernarekin osatzea espero dugu. Hori bai, sarrerak

ahal den eta merkeen jartzen saiatuko gara.

- Datorren urteei begira hasi al zarete?

- Ziur gaude aurtengoak arrakasta izango duela. Goierriin orain arte ikusi gabeko kultur arrakasta izango du. Hori lortzeko lan asko egin dugu eta ondo aterako da. Eta, noski, honen jarraipena izatea nahi dugu. Datorren urteetan sendotu eta, Goierriin eta zergatik ez

Gipuzkoan, jaialdi erreferentziala izatea nahi dugu. Datorren urteetan ez dugu nahi Itsasondo bakarrik izatea jaialdiaren gunea. Ez diogu inori konpetentziarik egin nahi baina kalitatezko kultura ikustea hiriburuetara joan beharrean Goierriin ere bere aukera eman behar diogu. Ez dugu makrojaialdia izan nahi, urteko egun batzuetan gure eskualdea mundu zabaleko musikaz busti nahi dugu.

- Besterik gehitzeko?


- Sustaiez Blai proposamen bizia izatea nahi dugu. Badakigu bertako kideok ez garela iristen Goierriin kultur kezkek dauden bazter guztietara. Hau dela eta beste ekimen batzuentzat zabalik gaude eta espero dugu goierritarrak jaialdira ez joatea ikusle soil gisara eta proiektu honetan parte hartzea.



AUSGEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✗ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✗ Berogailuak
- ✗ Iturgintza
- ✗ Zeramika erakusketa
- ✗ Bainuko altzariak
- ✗ Erreforma osoak



Eugenio Irastorza ordiziarra kalean, 23 urte kartzelan egin ondoren

Eugenio Irastorza ordiziarra kalean da irailaren 9tik, Espainiako karteletan 23 urte egin ondoren. Euskal presoetan kartzelaldi luzeena egin duena da. Irailaren 27an, omenaldia eskainiko diote Ordizian.

Askatasunaren aurreko egunak, orduak, nola bizi izan zenituen?

Aurreko egunak oso ondo. Pentsatzen nuen urduriago egongo nintzela, baina nahikoa lasai egon nintzen. Baina azkeneko eguna ezberdina izan zen, sentimentua erabat aldatu zen bat-batean. Neskalagunarekin goizean aurrez aurreko familiarra izan nuen, eta oso ondo. Arratsaldean aurrez aurreko intimoa nuen eta han dena ezberdina izan zen. Goizean oso pozik nengoen. Arratsaldean, berriz, nolako tristura! Aurretik Juankar Balerdi lagun minarekin egon nintzen hizketan eta paseatzen. Zazpi urte egin ditut berarekin eta oso-oso harreman estua izan dugu. Bi ordu eman nituen berarekin eta bat-batean oso triste jarri nintzen. Nik uste baino tristura handiagoa sentitzen nuen. Gaua, berriz, batere lorik egin gabe pasatu nuen. Ateratzeko unea oso gogorra izan zen. Izan ere, Almeriako kartzela-



Eugenio Irastorza, Ordizian egin zitzaion ongi etorrian, ama, alaba, neskalaguna eta aita, alboan dituela.

tik, zenbaketa egin ondoren, goizeko 9etan ateratzen dira presoak eta nik ere nirekin gauza bera egingo zutela uste nuen. Barruko kideekin egoteko aukera izango nuela uste nuen. Baina ez zen horrela izan. Zenbaketa garaia baino lehen ateratzen eta ez nituen lagunak agurtu. Ateak joaz eta agur esanez ateratzen kalera. Juankar Balerdirekin bi minutuz egotea lortu nuen. Oso hunkigarria izan zen.

Kartzelatik ateratzen zenean han nituen zain. Eromena orduan hasi zen. Telefono deiak, errepidea, urduritasuna, tristezia, poza... Momentu batetik bestera, sentimendu batetik bestera pasatzen nintzen.

1.100 kilometro egin behar izan zenituen etxera itzultzeko. Nola-koa izan zen bidaia?

Banekien, Almeriatik Euskal Herrirako bidaia oso luzea eta gogorra zela. Baina norberak egitea, ezberdina da. Bidaia, benetan, oso luzea da. Momentu horretan konturatzen zara sendiartekoentzat eta lagunentzat zer suposatzen duen. Auto on batean, eta abiadura handian etorri ginen, baina hala ere oso astuna izan zen bidaia. Gainera ni ez nago ohituta abiada horretan ibiltzen. Momentu batean, abiadurarekin beldurtu egin nintzen. Hala ere, bidaia oso ondo egin genuen. Altsasura iritsi ginenean, senide guztiekin elkartu nintzen. Handik, Ordiziara eta hango ongi etorrria ere hunkigarria izan zen oso.

Dena den, omenaldia irailaren 27an egingo dizue...

Berriz ere urduri jarriko naiz. Ez nago ohituta jendearen arteko harremanetan. Nik urte hauetan guztietan, lagunekin oso harreman estua izan dut, bisitan zetozenekin ere bai. Baina zure eremuan zaude eta espazioa eta egoera dominatzen duzu. Orain kalera ateratzen naizenean, guzti hori ez dut dominatzen eta orduan oso inseguru sentitzen naiz, eta askotan oso lotsati, eta ni ez naiz lotsatia. Oso erraz jartzten naiz urduri, asko hunkitzen naiz nire kideez hitz egingiten dudanean.

Nerea alaba ere besarkatu zenuen aspaldiko partez.

Izugarritzko harrera egin zidan Altsasun. 6 hilabete egon naiz bera ikusi gabe. Hiru hilean behin izaten genuen konbibentziako aurrez aurrekoa, 1.100 kilometrora nengoela ikusita. Juankar Balerdi kidearen familiartekoek auto istripua izan eta bi hil ziren. Oso samingarria izan zen guretzat. Beldur handia hartu genuen errepideari. 15 egunera geneukan aurrez aurrekoa eta hauek ere Madrilen, auto istripua izan zuten. Orduan erabaki genuen, 6-7 hilabete falta zirenez ni kalera ateratzeko, bidean horrelako arriskuan ez jartzea. Beraz, gogo izugarria nuen Nerea ikusteko, eta berak ere bai ni.

KORO
FISIOTERAPIA
ERREABILITAZIOA

Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57



Dispersio politikoaren hasi zute-nean Jaenera eraman zintuzten. Momenturik gogorrenak bertan bizi omen zenituen.

Hasieran preso guztiak elkarrekin egon ginen. Horrek babes handia edukitzea esan nahi du. Indarra edukitzea ere bai. Herreran saiatu ziren egoera zailtzen baina ezin izan zuten, denok elkarrekin geunden eta. Egoera errepresiboei aurre egiteko indar handiagoa geneukan.

Dispersioarekin Jaenera eraman nindutenean, oraindik ere mentalitate horrekin joan nintzen. Tentsioa sortu, mehatxuak eta irainak egiten zizutuzten funtzionarioekin topo egin nuen. Eta lehenengo momentuan, erantzun egiten duzu, denok elkarrekin egongo bagina bezala. Baina dinamika hori epe labur batean egin dezakezu. Baina egoera hori luzatzen ari den neurrian, beraien gaitasuna daukate egoera hori mantentzeko, baina norbera ez bada birziklatzen, neurri batean niri gertatu zitzaidan bezala, oso desgaste handia da. Eta ni ez nintzen konturatzen desgaste horretan, erasoei zetozen neurrian erantzuten nien. Baina antisietatearekin hasi nintzen. Ez nintzen konturatu, bakarrik egonda, egoerari beste era batera aurre egin beharko niola, kartzelaz aldatu ninduten arte. Ez nintzen gauza izan egoera ikusteko. Min handia egin zidaten, baina egin zezaketen izugarria zen. Ezer inpor-



Eugenio Irastorza, legearen arabera, 1995etik kalean egon beharko luke, zigorraren hiru laurdena beteta baitzuen. Ordiziarrak kartzelaldi osoa bete du: 23 urte eta erdi. 21 urterekin sartu zuten preso, ETAko kidea izatea leporatuta.

ta ez zitzaidan egoerara arte eraman ninduten.

Epe honetan, politikoki egoera asko aldatu al da?

Gai praktikoetan aldaketak egon dira, baina oinarrian, Euskal Herriaren eskubideetan, orain dela 23 urteko ukapen bera dago. Horretan ez da ezer aldatu. EAJ-EA behartuak sentitu dira Estatutuaren aldaketa eskatzera, lehengoak, arazo guztien irtenbidea zenak, ez dituelako arazoak konpondu. Orain Ibarretxe plana, 1977. urteko egoerara itzultzea da: beste itun bat egitea, gatazkaren benetako arazoak konponduko ez dituen. Horretan ia ezer ez da aldatu. Ezker Abertzaletik norabide egokian ari dira bideratzen arazoaren irtenbidea eta hori ukazina da. Lehen autodeterminazioa aipatzen


zen, fetitxe bat bezala, orain EAJk errealitate bat bezala ikusten du. Hori, noski, teoriarik. Hori da EAJren diskurtsoa, ekintzak deuseztatu egiten baitute. Sakonean, oinarrian ez dira gauzak aldatu, formetan, adibidez, ni kartzelan sartu nindutenean ez zegoen Gasteizko Legebiltzarrik, ez zegoen Ertzaintzarik... Aldaketak dira bai, baina Euskal Herriaren subiraizari oso gutxi aportatzen die, arazoa zimentatzen laguntzeko balio izan baitute. Momentu honetan, aukera handia zabaldu da norabide ona hartzeko. Orain ikusi beharko da EAJ eta EA prest dauden Estatuari aurre egiteko, eta abertzaletasun indartsu batekin, koiuntura aprobetxatuz, herri bezala onartua izan gaitzaten, lurraldetasuna onartu dezaten eta Estatu espainia-

“Kartzelatik atera nintzenen han nituen zain. Eromena orduan hasi zen. Telefono deiak, errepidea, urduritasuna, tristezia, poza...”

rrak eta frantsesak euskal herritarren hitza eta borondatea entzun dezaten, borroka egiteko.

Hainbeste urtean kartzelan bizitzaren ikasi duzu. Orain berriz ere, kanpoan bizitzaren ikasi beharko duzu.

Dena da berria. Aldaketa oso handia, bat-batekoa. Pixkanaka ohitu beharko naiz. Aldaketa ez da fisikoa bakarrik izan, jendea ere aldatu egin dela iruditzen zait. Lehen harremanak, irekiagoak, bat-batekoagoak, zuzenagoak... zirela iruditzen zait. Herriaren inplikazio handiagoa zegoen zenbait gaietan. Orain jendea indibidualizatu egin dela iruditzen zait. Kalea ez da lehen bezalakoa. Lehenengo lau egunetan hartu dudana irudipena besterik ez da. Hori bai, gaur egungo gazteak helduagoak direla iruditzen zait.



kutxa

gizarte ekintza

Gurutze Gorriko boluntarioen lana:

"Norbere denbora libretik gizarte-arloko ekintzaren bat egiteko denbora eskaintzea da"

Goierriko Gurutze Gorriak urte asko daramazki goierritarren zerbitzura, han eta hemen, era bateko eta besteko laguntza ematen. Batez ere, Gizarteko talde ahulenei laguntzen. Boluntarioz osatutako taldea da. Goierriko Gurutze Gorriko boluntario taldeak, liburuxka bat argitaratuko du beraien lanaren eta filosofiaren berri emanez. Hona hemen laburpentxo bat.

Zer da Gurutze Gorria?

Gurutze Gorria, 1859an sortu zen erakundea da, eta garai hartan, gerrako edozein alde-tako zaurituei arreta eskaintzea izan zuen helburu. Ordur geroztik, Gurutze Gorria, gizarteko beharrezkoen erantzuna ematen ahalegindu da eta ez soilik gerra-egoeretan eta sorospeneko zerbitzuak eskaintzen ere.

Gurutze Gorria, bere Oinarrizko printzipioetan (Gizatasuna, Inpartzialtasuna, Neutraltasuna, Independentzia, Borondatezko izaera, Batasuna eta Unibertsaltasuna) oinarrituta, eta munduko gobernuak gehienek sinatutako Genevako Hitzarmenaren babespean, gizatasunezko ekintzak egiten ditu nazioetan eta nazioartean, bai bake-garaian eta baita gerra-garaian ere, nola Gurutze Gorriaren hala Ilargi Gorriaren ikurpean.



Gurutze Gorriak Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzuari eskerrak eman nahi dizkio, txostena itzultzen laguntzeagatik.

Gurutze Gorria boluntarioek osatzen duzue.

Gurutze Gorrian boluntario izateak, norbere denbora libretik gizarte-arloko ekintzaren bat egiteko denbora eskaintzea esan nahi du, beti ere, Erakundeak dituen gizarte-interesen eta helburuen markoaren barruan eta bizi garen gizartearekin elkartasun-konpromiso bat izatea beste asebetetze-ordainsaririk gabe.

Beraz, onarpen horrek, Gurutze Gorriaren jarduerak markatzen duten eta gizarteak Erakunde honengan jartzen duen konfiantzari erantzun behar dioten konpromisoak modu arretatsu eta arduratsuan onartzea esan nahi du. Gizarteak Gurutze Gorriaz eginga duen irudia, Gurutze Gorriko boluntarioak beren jarrera, portaera eta jarduerekin nahiz gizatasunekin ekintza edota zerbitzu desberdinak garatzean Gurutze Gorriaz ematen dutena da.

Nortzuk osatzen duzue Goierriko Gurutze Gorria?

Goierriko eskualdeko Gurutze Gorria, beren denbora librearen zati bat Gurutze Gorriak jarritako markoan gizarte-intereseko jarduerak beren gizarte horren alde egiteko erabakia hartua duten eskualdeko pertsonak osatzen dute. Pertsona horiek, zuzenez, zuzenean esku hartzen dute garatzen diren gizarte-jardueretan, sanitatekoetan, eta abar, baina baita Goierriko eskualdeko Gurutze Gorriari eman nahi zaion norabidea erabakitzeak batzarretan ere.

Bereziki talde ahulenekin lan egiten duzue.

Gizarte-eskuhartzearen helburuak bi dira: bata, gizartearen egoerarik desabantailatsuenan dauden pertsona eta taldeen alde borrokatzea, ikuspegi prebentibo, baretzaile eta berrabiltzaile baten bidez; eta bestea, herritarren partaide-tzarako gune bat eskaintzea borondatezko lankidetzaren bidez. Helburu nagusia zera da, eguneroko bizitzan ahulak diren pertsonen eta giza taldeen gaitasunak lantzea eta

indartzea, beren pertsona-arloko nahiz taldeko autonomia bultzatzeko eta gizartearen benetan txertatzea lortzeko.

Gurutze Goierriko arduradunak zein konpromiso hartzen du?

Gurutze Gorriko boluntarioa izan nahi baduzu, Gurutze Gorria saiatuko da zure izaera eta profilarantz egokienak diren jarduerak aurkitzen eta behar duzun formakuntza emango dizu, jarduera horretan hasteko prozesuan zehar laguntza ere eskainiz.

Boluntario izateko erabakia, zeharo libre da eta hala izan behar du gainera eta hitzak berak dioten bezala, borondatezkoa. Erabaki horrek, ordea, erantzukizun garrantzitsua du berekin eta konpromisoa ere bai noski, astean ordu gutxi batzuetakoa izan arren. Gurutze Gorriak, malgutasuna eskainiko dizu zure konpromisoa betetzeko, izan ere, aukeratu ahal izateko moduko eskaintza zabala egingo baitizu. Zure konpromisoa hartzean, zure eskaintza hartuko da kontuan alde batetik eta Erakundearen beharrezko puntualak bestetik.

Konpromiso hori desberdina izan daiteke pertsona bakoitzarentzat eta aldatuz ere joan daiteke bakoitzaren bizitzan gertatzen diren aldaketan arabera. Bestela esanda, ez da zeharo mugigaitza edota sartzeara edo ez sartzeara erabat baldintzatutako duen zerbitzu, baizik eta erantzukizunerako orientazioa.

Gurutze Gorrian sartu nahi izanez gero, Beasaingo Urbialde plazako 6 zenbakian duzu egoitza (943 16 21 50).

Goierriko eskualdeko Gurutze Gorrian egiten dituzten jardueren artean, ondorengoak dira aipagarrienak.

Talde ahulenekin egindako gizarte esku-hartzea

Egokitutako garraioa: mugikortasun-zailtasunak dituzten pertsonak (elbarriak, adineko pertsonak, eta abar.) garraiatzeko bereziki prestatutako ibilgailuak erabiltzen dira, beren etxeetatik Beasaingo edo Idiazabalgo Eguneko Zentroetara eramateko eta berriz itzultzeko. Pertsona partikular ezgaituen lekualdaketak egiteko ere erabiltzen dira.

Sendian: Foru Aldundiaren egitarau bat da. Bertan, laguntza batzuk eskaintzen dira familiak menpekotasunak dituen adineko pertsona bat badauka, etxean edukitzeko aukera izan dezan. Marko horren barruan, Goierriko eskualdeko Gurutze Gorriak, garraio-zerbitzuak egiten ditu Eguneko Zentroetara eta Egoitzetatik Erretiratuen Etxeetara.

Egoiliarren eta bisitarren garraioa Ordiziako Egoitzarekin elkarlana.

Telefono-zerbitzua: zerbitzu honekin pertsona desberdinak Sos-Deiakekin botoi bat sakatuta jar daitezke harremanetan.

Zerbitzu bereziak: anbulantzia edo egokitutako garraioa beharrezkoak izan litezkeen ospakizun eta gertakizunetan zerbitzu hauek burutzen dira.



Argazkian, Goierriko Gurutze Gorriko zenbait boluntario, iazko Beasaingo Boluntario egunean ateratako argazkian.

Ikastaroa boluntario berrientzat

Erabat ziurtatu gabe badago ere, urriaren erdialdetik aurrera ikastaroa eskainiko du Goierriko Gurutze Gorriak, boluntario berriei zuzendua. Osasun-garraio laguntzaileari buruzko ikastaroa izango da. Bertan parte hartzen dutenek, oinarritzko bizi euskarri bezala funtzionatzen duen anbulantzia batean ibiltzeko ahalmena emango dute. Horrekin batera, boluntarioek ez behar baten aurrean nola jokatu behar duten erakutsiko da.

15 lagunekoa taldeak izango dira eta ordutegia, partaideek zehaztuko dute. Informazioa: 943162150 telefonoan.

Elikagai banaketa: Goierriko eskualdeko udalerri desberdinetako gizarte-zerbitzuek, giza talde desberdinen beharrak baloratzen dituzte zerrenda bat osatuz, ondoren, Europako Batasunetik etorritako elikagai-soberakinak zerrendako pertsona hauei banatzeko. Elikagai-banaketa hori urtean bi aldiz egin ohi dute.

Etorkinak: bereziki ahulena den giza talde horri, laguntza desberdinak ematen zaizkio. Alde batetik, paper-arazoak

kudeatzeko laguntza ematen zaio eta bestetik, gizartean nahiz lanean txertatzeko laguntza eskaintzen zaio. Arlo horretan, lanbide-heziketako prestakuntza eman nahi zaio giza talde horri. Curriculumak prestatzen eta gisakoe-tan ere laguntza eskaintzen zaio.

Osasun-arloan esku-hartzea

Osasun-arloko esku-hartzea, zuzen-zuzeneko jarduerara Gurutze Gorriak herritarrei oro-

korki laguntzeko eta hala gauzatzen da istripuak, hondamendiak, ezbeharrak, gizarteko gatazkak, gaixotasunak, izurriteak eta abar gertatzen direnean. Horrelakoek eragindako kalteen prebentziozko lanak ere atal honen barne daude.

Goierriko eskualdeko Gurutze Gorria une honetan, prebentziozko zerbitzuetan dihardu nagusiki: bildutako-entzat edo partaideentzat arrisku-motaren bat izan litekeen ekitaldietan esku hartzen alegia.

Nazioarteko Elkarlanean esku-hartzea

Gurutze Gorriaren Herri Batzar guztiek bezalaxe, Goierriko eskualdeko Gurutze Gorriak, bere aurrekontuaren zati bat nazioarteko elkarlenerako jardueretarako uzten du, eta gainera, beste jarduerak batzuen bitartez ere esku hartzen du arlo horretan.

Formakuntza arloa

Goierriko eskualdeko Gurutze Gorriak, ikastaro-sorta zabala eskaintzen du, nola euskaraz ala gazteleraz. 'Hirugarren Adinekoentzako Arreta Bereziak' izenekotik eta 'Erizain Laguntzailea Ospitalean' izenekoraino. 2002. urtean 42 ikastaro eman zizkien, 703 ikasleri. Gure bolondresak beren jarduna egoiki burutzeko prestatzea helburu duten eskaintzak dira eta aldi berean gizarte eta osasun-arloko ezagutzak zabaltzen dituzte herritarren artean, bide batez, ahulenak diren giza taldeak gizartean eta lanean txertatzen lagunduz (ikastaro horietako batzuek, Europak enplegu-sustapenerako ematen dituen diru-laguntzen bidez egiten dira).

**"Etorkinak:
bereziki ahulena den giza
talde horri, laguntza
desberdinak ematen zaizkio"**

114 ikasle eskolan

Irailaren 8an hasi zuten ikas-
turte berria 2tik 12 urte arteko
neska-mutikoek, iaz baino 10
lagun gutxiagok. 97 ikasle
herritarrek dira, 11 mutiloa-
rrak eta 6 zeraindarrak. Behe-
ko eskolan, haur hezkuntzako
39 haur dabilta eta goikoan
lehen hezkuntzako 75. Lehen
aldiz matrikulatu direnak 9
dira. Iaz, azken ikasturtea he-
rrian egin zutenak 17 ziren.
14 irakasle ari dira lanean.
Irailaren 29tik aurrera arra-
tsaldez ere hasiko dira.

Txistu klaseak

Joxemari Telleriak zuzendu-
tako solfeo, txistu, danbolin
eta danbor ikastaroak urria-
ren lehen hasiko dira.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Ju-
benilak: Segura 4-2 Trintxer-
pe.

Asteburuan etxean:
Errejonalak: Segura-Sora-
luze, zapatuan, 17:00etan. **In-
fantilak:** Aizkorri-Elgoibar,
jaien, 11:00etan.

Bazkide kanpaina. Kontu
korrante zenbakia emana du-
tenei kuota pasatzen hasiko
zaie. Eskura ordaindu edo
bazkide berri egin nahi due-
nak futboleko tabernatik pasa
beharko du.

Ehiza postuak

Irailaren 14an subastatu ziren udaletxean enkantean ateratako
partzoneriko 48 postu. Ehiztariek 156.939 euro utzi zituzten,
iaz baino 6.000 euro gehiago. Hamar ordainduenak hauek di-
ra: Apota 11 - 9.075 euro, Apota 3 - 8.011 euro, Apota 1 -
7.759 euro, Apota 9 - 7.542 euro, Apota 5 - 6.190 euro, Apo-
ta 6 - 6.011 euro, Apota 18 - 6.000 euro, Apota 13 - 5.800 eu-
ro, Apota 8 - 5.120 euro eta Apota 15 - 5.109 euro.

Subastatik kanpo Segurari tokatu zitzaizkion 13 postuak,
pasa den asteartean banatu ziren 140 ehiztari herritarren arte-
an.

II. euskal hegazti eguna

Irailaren 28an, plazan, errebotean eta arboladian

Herriko zenbait el-
karte eta partikula-
rrek, udalarekin ba-
tera euskal hegazti
egunaren 2. edizioa
antolatu dute. Arra-
za eta espezie ez-
berdinetako hegaz-
tiak eta euretako
zenbaitekin eginda-
ko produktuak izan-
go dira ikusgai eta
salgai irailaren
28an. Iaz euskal oiloak izan
bazuen protagonismoa, aur-
tengoan antzarrek izango du-
te.



*Aurten ere,
Blax
Izagirrerren
oilar
famatusa
ikusteko
auera
izango da.*

Solasaldi gastronomikoa

Hegazti eguna girotzen joate-
ko, irailaren 25ean, 19:00etan
Txoritegi elkarteak, Mertxe
Agirre, Aiert Izagirre eta Gor-

ka Izagirre, herriko hiru su-
kaldarik, plater ezberdinak
prestatuko dituzte. Ondoren,
probaketa eta bertaratuen ar-
teko solasa.

Egitaraua

10:00etatik aurrera: Oilo
salda eta txorizo egosia Txo-
ritegi elkarteak, hegaztizale
eta antolatzaileentzat.

10:30etan: Txistula-
riak eta trikitilariak he-
rrian zehar.

10:30etik aurrera:
Antzar, hegazti eta he-
gazti produktuen era-
kusketa eta salmenta.

14:30ean: Herri bazka-
ria plazan. Txartelak
salgai tabernetan.

Herritarren hegaztiak

Iaz bezala, herritarren he-
gaztiak ikusteko aukera ere
izango da. Hamar bat herrita-
rrenak egon ziren erakusgai
iazkoan.

Zozketa ibiltaria

Gastuei aurre egiteko, hegazti
produktuez osatutako otarra
kalez kale ibiliko da, bazkari
aurretik zozketatzeko.

Labur-labur

● **Gazta saritua.** Irailaren
7ko Legazpiko artzai egune-
an, Gipuzkoako gazta txapel-
ketan, Ondarreko Karmele
Murua aurkeztutakoak 3. sa-
ria lortu zuen.

● **Usakume tiraketa.** Iraila-
ren 7an Txoritegi elkarteak
antolatutako XXI. edizioa
Unai Sarasola urnietarrak ira-
bazi zuen. Lehen herritarra
Nikolas Labaka. Txoritegi el-
karteko onena Santiago Or-
mazabal. 187 ehiztarik parte
hartu zuten.

● **Soinketa.** Iluntzetako tal-
dea irailaren 8an hasi zen.

● **Jubilatuaren soinketa.** Aur-
tengo ikastaroa urriaren 7an
hasiko da. Astearte eta oste-
gunetan, 15:30etik 16:30era,
frontoian. Irakaslea: Jokin El-
koro.

● **Jubilatuaren txangoa.** Iraila-
ren 24an, Ondarroa eta Gi-
puzkoako kostaldara.

● **Aerobic.** Gazte eta hel-
duentzako ikastaroak. Intere-
satuekin bilera, urriaren 2an,
18:00etan, Kultur etxean. Ira-
kaslea: Sabina Zivec.

● **Udal ikastaroak.** Urtean

zeharreko ikastaroak urrian
dira hastekoak.

● **Udal liburutegi berria** al-
tzari berriak sartu zain dago
inauguratzeko.

● **Ordozgoitiarren bazka-
ria.** Irailaren 21ean, Alzaga-
raten.

● **Korukoen txangoa.**
Urriaren 4an Errioxara.

● **Argazki erakusketa.** Na-
zioarteko sega txapelketako
hainbat argazki ikusgai Elo-
rripeko erakusgunean.

Joseba Telleria

Kiloko ondobeltza

Pasa den irailaren
10ean, Jesus Etxezar-
retak, artzai zebilela,
Araba basoko paga-
dian aurkitutakoa da.
Argazkian, Mirari eta
Garbiñe Etxezarreta,
Josuren arreba, pe-
rretxikoarekin. Argaz-
kia ateratzeko garaian
mendian zen Josu ar-
tzantzana.



San Migel jaiak

Udazkenarekin batera, iritsi dira San Migel jaiak. Irailaren 26an, ostiralean hasiko dira festak eta, astelehenean, San Migel egunean amaituko dira. Egitaraua prest dago dagoeneko.

Irailak 26, ostirala:

12:00etan: Hasiera suziriekin.

18:00etan: Haur jolasak.

20:00etatik 22:30ak arte: Sagardo dastatzea, norberak ekarritako janariarekin.

Ondoren, trikitixa Ansorregi taldearekin.

Irailak 27, larunbata:

13:00etatik 19:00etara: Herriko artista gazteen erakusketa egun osoan Frontoi ondoko Kultur-lokalean.

15:00etan: Plater tiraketa herritarrentzat.

16:30ean: Urdaneta dantza taldea.

17:30ean: Patxin eta Potxin pailazoak.

18:30ean: Mondejua eta ardoa neurrian.

Ondoren, erromeria goizaldera arte Epelde eta Larrañagarekin.

Irailak 28, igandea: San Migel bezpera:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etatik 19:00etara: Herriko artista gazteen erakusketa egun osoan, Frontoi ondoko Kultur-lokalean.

Ondoren: Jubilatuentzat haiaiketakoa.

12:00etan: XX. Txirrindulari igoera, Elortza anaiak trikitilariet alaiturik.

17:30ean: Peñagarikano eta Olasagasti aizkolariak.

Ondoren, erromeria, Elortza anaiak trikitilarietkin.

Irailak 29, astelehena: San Migel eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Pilota partidak: Baez II eta Mintegi, Aritz eta Gurrutxagaren aurka.



Herriko artisten lanak ikusgai

San Migel jaiotan, erakusketa berezia egongo da ikusgai pilotaleku ondoko Kultur-lokalean: herriko haurrek egindako eskulanak. Uztaileko goizetan, 3 eta 13 urte bitarteko 16 haur elkartu eta ekintza ezberdin ugari egin dituzte, Nekane Garmendiaren gidaritzapean. Batez ere eskulanak egin dituzte, eta festetan izango da emaitzak ikusteko aukera.

Iaz hasitako ekintza da udako aisi taldearena. Nekane Garmendiaren ekimenez eta Udaliaren onarpenarekin, herriko haurrak elkartu eta herrian bertan ekintzak izatea lortu du, magisteritzako ikasketak egiten ari den herritar honek.



14:00etan: Herri bazkaria, Laja eta bere taldearekin, eta Imanol Lazkano eta Aitor Mendiluze bertsolariekin

18:00etan: Toka txapelketa herritarrentzat.

Ondoren, trikitixa, Laja eta bere taldearekin.

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabea



Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48

mazda Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952

N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**



GAINTZAKO UDALA



Jai zoriontsuak herritarroi!

Benediktarren ospakizuna

Benediktarrak Idiazabala iritsi zirela ehun urte bete direla ospatzeko hainbat ekitaldi egin zituzten irailaren 10ean. Belok, Estibaliz eta Lazkao-ko praileak izan ziren Idiazabal-en. Gurutzetako ermita, Benediktarren monastegia zegoen lekua eta Parrokia bisitatu zituzten. Bertan meza ospatu zuten.

Benediktarrak 1903ko abuztuan iritsi ziren Idiazabala Iparraldeko Beloketik. Frantziar talde erlijiosoak galarazten zituen legea atera eta urte batera. Campos edo Etxeberri Haundi izena zuen etxea monastegi bihurtu zuten. Gaur Egun Jauregiatzonena (Mujika ondoan) dagoen inguruan zegoen monastegia.

Belokeko praileek harreman estua izan zuten idiazabal-darrekin. Batez ere Maurizio Luzuriaga erretorearekin. Herriarrek jakitu zuten etxe frantseseko eskolak ere ematen zituzten. Bokazioak ugaritu egin ziren,

eta benediktarren egoitza txiki geratu zen. Herriko beste etxe batzuk erabiltzen hasi ziren.

Iparraldetik Idiazabala etorri zirenean benediktarrak zuten abadea hil zenean, haren ordezkioak erabaki zuen egoitza herriz aldatzea. Herriarrek praileak bertan gertatzeko ahalegina egin zuten, baina abade berriak leku itxiago bat nahi zuen. Hala aurkitu zuten gaur egun Lazkaoan duten egoitza.

Xabier Urteaga

Pilota eskola

Aspaldian herrian pilotan aritzeko ohitura gutxitzen ari dela ikusita, Udalak eta herritar talde batek Pilota Eskola martxan jartzea pentsatu du.

Pilotan aritu nahi duten ume eta gazteak (1991n baino lehen jaioak) irailaren 24a (asteazkena) baino lehen eman behar dute ize-na Kiroldegian edo Udaletxean.

Pilotalekua itxita

Oporrak direla eta Igarondo pilotalekua itxita

San Migelak Ursuaranen

Irailak 26, ostirala:

19:00etan: Jaien hasiera suziri eta kanpaiekin.

Ondoren: Afariak (mondejua, gixadua eta ardi txuleta).

22:30ean: X. Mus azkarra lehiaketa.

Irailak 27, larunbata:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Txistulariekin hasita, Azpillaga eta Narbazia bertsolariak, Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariekin.

14:00etan: Udaletxe bazkaria.

Ondoren: Bertsolariak.

Iluntzean: Afariak eta jarraian trikitixa goizalderarte.

Irailak 28, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:30ean: Herri Kirolak. Aizkoran Ugaitz eta Aratz Mugerza. Harria jasotzen Aimar Irigoien errezildarra.

14:00etan: Herri bazkaria, Mendizabal eta Zeberio bertsolariekin eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariekin.

17:00etan: Joko tradizionalak trofeo eta opariekin, eta ume eta helduentzako txokolate jana.

egongo da irailaren 15etik 29ra. Giltza behar duenak Xaloan hartu dezake.

KZ gunea

Irailaren 22tik urriaren 3ra 20 orduko ikastaroa emango dute 18:00-20:00etara.

Telefono gida

Udala, urtero argitaratzen duen telefono gidako zerbakiak eguneratzen ari da. Aldaketaren bat egin nahi duenak horretarako Udaletxean dauden orriak bete behar ditu urriaren 10a baino lehen.

X. Argazki rallya

Irailaren 28an jokatu da X. Argazki rallya. Goizeko 8,30etatik 10,30etara bitartean udaletxean karreteak banatu dira, eta jaso, berriz, 13:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:00etara.

Edonork har dezake parte argazki rallyan. 35 mm.ko diapositiben modalitateko rallya da. Izena ematearekin batera jakinaraziko dira argazkiak ateratzeko gaiak. Izena emateko garaian, 9 euro

ordaindu beharko dira, karretearen eta errebelatzearen truke. Bazkaltzen gelditu nahi izanez gero, 25 euro ordaindu beharko dira.

Sari banaketa azaroaren leian, arratsaldeko 6etan egingo da. Garaikurrarekin batera, 150 euro, 90 euro eta 60 euro jasoko dituzte lehenengo hiru sailkatuek. Herriko saria izango da, 60 euro eta garaikurra, 16 urtetik gorako lehen herriko sailkatua-
rentzat.

V. Haurren argazki rallya

16 urtetik beherakoentzako lehiaketa da V. Haurren argazki rallya 'Aceralia Perfiles Olaberria, Grupo Arcelor'. Helduentzako argazki rallyaren egun eta ordu berean jokatuko da. Izena emateko orduan 3 euro ordaindu beharko dira. Karreteak eta errebelatzea antolatzaileen esku izango dira.

Partaide guztiek sari bana eskuratuko dute.

San Migel jaiak

Irailak 27, larunbata:

17:00etan: Haur jolasak. Ohe elastikoa eta tailerra.

20:00etan: Txupinazoa.

20:30ean: Herri afaria (tikeak salgai).

len Lujanbio, Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsolariak Josu Goikoetxearen tramagilearen esanetara.

Ondoren, trikitixa.

Goizaldera, langostino jatea.

Irailak 28, igandea:

10:00etan: Goiz eresia Alegiako txistulariekin.

12:00etan: Meza nagusia.

Ondoren ikusgai izango dira Imanol Mujika Alkateari egin berri zaion omenaldiko argazkiak.


18:00etan: Herri-kirolak: Anjel Arrospide eta Joxe Aierbe, Joxe Ugarteburu eta Iñaki Azurmendiren aurka. Egin beharreko lana: 4 enbor 60 ontzako eta 4 enbor 54 ontzako (kana erdi) ebakitzea.

Ondoren Miren Urkiola, 15 urteko neska, harrijasotzailearen erakustaldia izango da.

19:00etan: Sagardo eta txistorra dastaketa. Aulia (Legorreta), Zabala (Aduna), Begiristain (Ikaztegieta), Olagi (Altzaga) eta Aburuza (Aduna).

Imanol Muxikaren omenaldiaren ondoren San Migelak atea joz

Aurreko GOIERRITARREN alean aipatu genuen bezala, Imanol Muxika, Altzagako alkateari omenaldi xume bat egin dio herriak bere alkatetzan eginiko lanengatik esker ona erakusteko.



Ohorezko aureskuarekin eman zitzaion hasiera ospakizunari. Ondoren

Udalak bere esker ona adierazteko, egurrean landutako armarrira oparitu zion eta Arteak Elkarteak berriz esker oneko hitz batzuk grabatuta zituen euskal makila.

Honen ondoren Iñaki Azurmendi, Joxe Ugarteburu eta Axen Urretabizkaia aizkolariek erakustalditxo bat eskaini zuten. Aipatu behar dugu, hauek beren borondatez etorri zirela, eta horregatik gure esker ona bidali nahi diegu. Hau dena igarota, sabalak betetzeko asmoz, Patxi Aierbe ordiziarrak prestaturiko paella erraldoia dastatzeko aukera izan zen 120 bat lagunentzako prestatuta zegoen bazkari herrikoian. Azkenik, bazkal ostean atsegingarriagoa egiteko asmoz trikiti soinuak izan ziren entzungai.

Hala ere ez pentsa omenaldi honekin alkate eta herriaren lana bukatutzat geratzen denik. Erortzearen dauden herriko festak antolatzea da hurrengo afera eta pasa den ospakizun honen balorazioa ikusita festa oparoak izango direlakoan gaude. Ondoren duzue San Migel jaietako egitaraua.

Ekain Muxika

Irailak 29, astelehena: San Migel eguna:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren Epelde eta Larraña-

ga trikitilariak eta Zeberio bertsolarien saioa.

14:00etan: Herri bazkaria.

18:00etan: Toka Txapelketa herrikoia.

Olagi Sagardotegia

Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA



ALTZAGAKO UDALA

Herriaren gurtiei eta egun hauetan bisitatuko gaituzunei feta alai eta zoriontsuak opa dizkizue.

Alkateak



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia.



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

Kirol jarduerak

Ikasturte berriaren hasierarekin batera, kirolari dagokionean ere martxan jarriko dira zerbitzu berriak eta izena emateko epea irailaren 25ean amaituko da.

2003-2004 denboraldirako herrian kirol zerbitzu ugari eskaintzen dira herritar guztientzat; hala nola, jubilatuentzat soinketa eskaintzen da, Zelaia azpiko aretoan, bero-gailuarekin.

Norberaren adin, gustu eta ahalmenen arabera, mantenimenduko soinketa, gimnasia, yoga, aerobik-a eta areto dantza bezalako jarduerak eskaintzen dira.

Interesa duen edonork Au-
zoeta Udal Kiroldegiko ardu-
raduna den Pako Urrestarazu-
rengana jo dezake edota

943180384 telefonora deitu,
bertan informazio gehiago es-
kainiko zaiolarik. Gogoan
izan, izena emateko epea irai-
laren 25ean amaitzen dela.

Dioni Galparsoro Etorkizuna Tourrean

Dagoeneko amaitu berri den tour honetan herritar baten izena ere nabarmendu behar da: Dioni Galparsoro. Euskaltel Euskadi taldeko txirrindulari ataundarrak itxura ona eman du Frantzian barrena jokotutako hamar etapetan. Euskaltel Euskadi taldeak lan bikaina egin zuen eta pelotoia kontrolatzeko gai izan ziren. Ataundarraren lanaren ondorioz taldekide bat izan da garaile etorkizuneko tour-ean

Ataun herriari omenaldia Saran

Joan den igandean, hilak 14, Sara herriak omenaldia egin zion Ataungo herriari. Omenaldi horretan alde batetik Ataungo Udalak hartu zuen parte, alkatea buru zutela; bestetik Ataundarrok Herri bilguneak ere bere agerpena egin zuen.

Ekitaldiak festa giro apalean ospatu bazituzten ere, Ataundarrok Herri Bilguneak omenaldi hau Hego Euskal Herriko herri askok bezalaxe, Ataunek bizi duen egoera politikoa salatzeke aprobetxatu zuen. Maiatzaren 25eko Udal Hauteskundearen ondorio garbi izan den egoera ez normalizatuaren egoera salatu nahi izan zuten ekitaldi horretan.

Herri bilgunetik aditzera eman zuten Sara herriarekin inolako arazorik ez dutela, are gehiago, beraien nahia Ataun eta Sara arteko harremanak sendotzea dela, "prest gaude bi herrien arteko elkar ezagutzeko ekimen ezberdinak bultzatzeko", adierazi zuten.

Mikel Dorronsoro saritua

Lazkao Txiki XII. bertsopaper lehiaketan

Joan den igandean, hilaren 14an, banatu ziren Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketako sariak. Gaztetxoan mailan 1. saria Mikel Dorronsorok lortu zuen, maila honetan bertsopaperak idazteko gaia 'Egunkaria irakurtzen dut' zuten. Hona hemen Mikelek saria jaso zuen sortako bertso bat:

*Egun batean ikusi gendun
Egunkarin amaiera
egun hortatik, eskuetatik
guri egin zigun hega
epaile hoién, joku zikina
orain doa amaitzera
Egunkaria eta Xingola
animo eta aurrera*

Urruzuno lehiaketa

Etorkizuneko idazleen harrobia da Eusko Jaurlaritzak urtero ospatzen duen Urruzuno literatur lehiaketa, eta hilaren 9an jakinarazi zuten Miramar jauregian aurtengo irabazleen zerrenda. Tartean herritar bat agertzen da, Oier Zurutuza gaztea. Oierrek poesia sailean 2.saria eskuratu du 'Zuri begira' lanarekin; hirugarren urtez segidan irabazi du saria San Gregoriokoak.

Saria 21 idazle gazterentzat da eta dagoeneko Eskozia eta Gales aldean gozatzen arituko dira.

Doltza Barandiaran



OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIK, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN

INAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA



Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa.: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**

San Migel ospakizunak

Udara ondoren, irailaren amaieran, San Migel eguna iristearekin batera bere inguruan antolaturiko hainbat ospakizun izaten ditugu herrian. Aurten ere ekintza desberdinez osaturiko egitaraua presatu da eta iraileko azken asteburuan zehar burutuko dira. Jarraian adierazten diren ospakizunak izango dira, herriarrok era batera edo bestera, ekintzetan parte hartuz ongi pasa dezagun.

Irailak 27, larunbata:

12:00etan: XII. San Migel toka txapelketa herrikoia herriko enparantzan.

13:00etan: VIII. harrikalari txapelketa herrikoia Berjaldegia zelaian. Jaurti beharreko den harriaren pisua: 2.080 gr. da.

16:00etan: XIII. San Migel mus txapelketa herrikoia eliz atarian.

Arratsaldean: Haurrentzat hainbat ekitaldi izango dira, **16:30etan** haurrentzako jo-kuak, **18:00etan** Mugerza eta bere animalien ikuskizuna haurrek animaliekin jolasean aritzeko aukera izango dutelarik, jarraian txokolate jana guraso elkarteak antolaturik herriko enparantzan.

21:00etan: Zubipe kiroldegian afari herrikoia izango da. Menua: marisko krema, txorixo eta odolki egosia, redondoa saltsan, postrea, kafea eta edaria. Afarirako txartelak herriko tabernetan salgai daude. Beraien salneurria haur, 18 urte arteko gazte eta langabetuentzat 9 eurokoa da, helduentzat, berriz, 11 euro-

Eskulan ikastaroa

Aurreko urteetan izandako arrakasta kontuan izanik, aurten ere eskulan ikastaroarekin aurrera jarraitzeko asmoa dago. Beste urteetan bezala klaseak astearteetan izango dira, goiz eta arratsaldean ohizko ordutegian. Ikastaroa urriaren lehenengo asteartean hasiko da, hau da urriaren 7an. Aipatu ikastaroan parte hartu nahi duzenok nahikoa duzue urriaren 7an goizez edo arratsaldean kultur etxeko liburutegira joatea, taldeak egun horretan osatuko baitira.

Paxkualen senditarren eskertza

Paxkual Larrañagaren senditartekoei beraiekin atsekabea bategin eta hileta elizkizunean partaide izan zineten guztiei banan-banan eskerrak ematea ezinezkoa gertatu izan zaienez, eskertza lerro hauen bitartez guztiengana hel araztea nahi dute. Paxkualen emazte Malen; seme-alaba: Malen eta Joxe Mari, Karmele eta Joxe Mari, Joxe Mari eta Kontxi; biloba eta gainerako senditarren izenean jaso ezazue eskerrik beroena herriko udal eta parrokiak, Legazpiko Santikutz abesbatzak, hainbat eta hainbat herrietatik etorritako txistulari eta musikariek, herriko ikasle eta txistulariek eta inor ahaztu gabe beraiekin bat egin izan duzen guztiek.

koa. Afarian zehar trikitilariak alaituriko giroa izango da.

Irailak 28, igandea:

Mendi bizikleta proba burutuko da goizeko 10,30etatik aurrera herrian zehar osaturi-

ko ibilbidean. Izenemateak eta irteera udaletxe aurrean egingo dira. Helmuga berriz Itxune erretegi aurrean kokatuko da, amaieran partaideei hamaiketako banatuko zaie.

Aitziber Murua

Osasun zentroa Olaran auzoan

Joan den irailaren 15 ezkerro, Osasun Zentroa Aseginolaza Etorbidetik Olaran auzora aldatu da eta bertan ematen dituzte bai mediku eta bai praktikanteak beren zerbitzuak. Udalak eta Eusko Jaurlaritzak bideratutako zentro berria herri erdi-erdian egokitu da eta ondorioz, zegamarrontzat erosoagoa gertatuko da bertara hurbiltzea, batez ere

pertsona helduentzat eta kotxerik erabiltzen ez duten pertsonentzat.

Mus txapelketa

Tartalo elkarteko mus txapelketa irailaren 26an hasiko da. 21:00etan izen ematea izango da, 12 eurotan. Finala urriaren 3an jokatu da.

Eduarne Albizu

Ikastaroetarako izen emateak

Jubilatu eta pentsiodunentzat gimnasia

Urteroko legez, Udal gizarte zerbitzuetatik, jubilatutako eta pentsiodunentzat gimnasia ikastaroa antolatu da. Irakaslea Joakin El-koro izango da eta urriaren 7an hasiko dira ikastorduek goizeko 10,30etatik 11,30etara, udal pilotalekuan. Matrikula: herriaren erroldatuek 12 euro, ez erroldatuek 42 euro eta pentsiodunek 21 euro. Gimnasia egunak astean bi izango dira, asteartea eta osteguna iazko moduan.

Herritarrentzat gimnasia

Mari Sol Arizkorretak ere herrian gimnasiako ikastaroak ematen ditu, bertan apuntatu nahi duenarentzat eta iaz bezala astelehen eta ostegunetan emango ditu ikastorduek 19:00etatik 20:00etara. Ikastaroa urriaren 6an hasiko da eta bertan parte hartu nahi duenak, irakaslearekin jarri behar du harremanetan.

Eskularen tailerra eta pintura tailerra

Kultur Etxetik ere, urte osoan funtzionatzen duten tailerrak martxan jarri asmoz, izenemateak ireki da. Irakasleak, iazko moduan, Iñaki Urreaga eta Maria Luisa Gorrotxategi izango dira. Izena Udaletxean eman behar da, urriaren 8 bitartean.

Liernin giro ona nagusi

Irailaren 6, 7 eta 8an ospatu ziren Lierni auzoko festak, Lierniko Amaren egunean eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, gainontzeko egunetan eguraldi polita izan da.

Lierniko txirrindulari proba irailaren 7an izan zen eta bertan Gorka Ruiz de Gordoak txirrindularia izan zen nagusi sari desberdinetan. Guztira 53 txirrindulari korritu zuten.

Txirrindulari probak bi zati izaten zituen, lehenengo saioan 60 kilometroko ibilbidea egin zuten txirrindulariek, Gorka Ruiz de Gordoak izan zen irabazlea eta Eneko Loran eta Erlaitz Etcheberriren aurretik.

Bigarren zatian, berriz, erlojuaren aurkako 4 kilometroko lasterketa egin zuten, Segura eta Lierni bitartean. Hemen ere irabazlea Gorka Ruiz de Gordoak izan zen eta hurrengo biak, Agustin Agirre eta Erlaitz Etcheberria.

Bi probak kontuan hartuta, lehenengo Gorka Ruiz de Gordoak izan zen, 2. Erlaitz Etcheberria eta 3. Agustin Agirre. Mendiko saria ere Gorka Ruiz de Gordoak irabazi zuen eta taldekako saria, 'Construcciones metalicas Urretxu'-rentzat izan zen.

Toka lehiaketa

Irailaren 7an egin zen. Bertan irabazlea Koldo Murua izan



Tonbolako zenbaki berezia

Lierniko festetan egon den tonbolako zenbaki berezia eraman duen zenbakia 272 izan da. Irabazleak hilabete epean aurkeztu behar du aipaturako zenbakia duen txartela.

zen, herriko gizonezkoari zegokion saria Jon Ugaldek eraman zuen eta emakumezkoari zegokiona Kristina Altunak.

Festetako egitarauaren barruan ez baina, ohi bezala, iraileko bigarren igandean egin zen Mutiloko Aitz-buru elkarteak antolatzen duen pitxoi tiraketa eta azken urte hauetan bezain arrakastatsua izan zen. 235 tiratzailek parte hartu zuten bertan eta irabaz-

lea Jose M. Otamendi idiazabalarra izan zen, 2. Juan Bustamante eta 3. Martin Mendizabal sailkatu ziren. Herriko saria Xabier Aranburuk eraman zuen eta elkarteak Patxi Agirrek.

Egunean zehar sari baten zozketarako zenbakiak saldu ziren eta saria Fermin Mazkarianentzat izan zen.

Iñaki Ugalde

Herriko apaizari agur

Hamabost urte gure herrian igaro ondoren, irailaren 14an egin zitzaion agur festa Jesus Arsuaga apaizari Lierniko ermitan. Jaiotzez herritik gertu dagoen Aztiri auzokoa da eta Ameriketara hainbat urte egin ondoren gure herrira etorri zen eta bertan pasa esan bezala azken hamabost urteak. Omenalditxo beroa eskaini zioten herritarrek, lehenik ermitan bertan ospatu zen elizkizunaren bitartez eta ondoren bazkari ederra Lierniko Mujika jatetxean izan zen. Orain Jesusek Arrasate inguruko bi parrokiaren ardura hartuko du. Ospakizun hauetan agurtutakoaz gain herriko parroko berria izan zen, Josu Elorza, Aramaiokoa eta azken urte hauetan Arrasateko parrokiaren ardura izan duena. Agurrik beroena eta zorrikeri onena doanari eta ongi etorria berriari.

Jubilatuaren irteera

Herri mailan jubilatuentzat urtero antolatutako ohi den irteera urriaren 11n egiteko asmoa dago. Aurten Gipuzkoako eta Araba aldeko lurraldeak bisitatu nahi dira. Goizean Gatzagako Gatzaren Museoa eta bide batez hurbil dagoen Dorleta-ko Amaren Santutegia bisitatuko da. Bazkaria Gatzagako jatetxe batean egin ondoren Arabako hiriburu aldera zuzenduko dira, bertan arratsaldea pasatzeko asmoz. Izena eman nahi duenak udal-etxean egin behar du ohiko ordutegian.

Gimnasia ikastaroa

Eskolamenean ikasturtearekin batera martxan jarriko dira herri mailan ikastaro desberdinak. Iaz bezala gimnasia ikastaroa antolatzeko asmoa dago aurten ere. Astearen bitan izango da ikastaroa, arra-

tsaldeko 7,30etik 8,30era izango da astearte eta ostegunetan. Ikastaro honetan izena eman nahi duen guztiak udaletxean eman behar du.

Ingeleseko ikastaroak

Penny Alzuaren eskutik martxan dira herrian ingeles ikastaroak. Izena eman nahi duen guztiak orain martxan dauden taldeetan sartzeko berarengana zuzendu besterik ez du.

Gripearen aurkako txertoa

Dagoeneko martxan da aurtengo kanpaina eta urtero bezala txertoa hartzera joateko deia zabaldu da, gaixotasun kroniko, nahiz 65 batetik aurrera dituzten pertsonentzat. Horretarako herriko osasun etxera zuzendu besterik ez dago.

KEMEN KIROLAK


Zumalakarregi, 1
943 88 51 68
ORMAIZTEGI

berriz aranburu
ERROPADENDA

Nagusia, 8

943 88 04 53

BEASAIN



Herriko eskola martxan da

Irailaren 8an ekin zioten ikasurte berriari Balentzategi herri eskolan, udako oporraldia-
ren ondoren inoiz baino ke-
men handiagoz. Izan ere iaz-
ko kurtsoetik hona hazi egin
da eskola, bai ikasle kopu-
ruan bai irakasleei dagokie-
nez. Herriaren bizitzaren
erreferente garrantzitsu izaten
segitzen du, bistan denez.

Ikasle kopurua hazten

Ekainean baino zazpi esko-
laume gehiago matrikulatu
dira aurtengo ekinaldirako.
Guztira 29 haurrek jasotzen
dute haur eta lehen hezkuntza
Balentzategin. Hasi berrieta-
tik lau bi urtekoak dira.

Aipatzeko moduko joera
Itsasotik egunero datozen
ikasleena da. Ohituraz Or-
maiztegira joan izan badira
ere, azken urteotan Gabirian
eskolaratzen dituzten haurrak

pixkanaka gora doaz kopu-
ruan.

Bost irakaslek dihardute
irailaren hasieratik lanean,
horietatik bat Itsasondorekin
elkarbanatuta badago ere.
Ane Miren Aizpuru da esko-
lako zuzendaria, eta Rafa,
M.Eugenia, Garbiñe eta Eide-
rrek osatzen dute irakasle tal-
dea. Eskola gobernuan, ber-
riz, irakasleez gain guraso
elkarteko Anaje Sarriegik,
Iñaki Maizek eta Tomas Igar-
tzabalek, eta Udaleko Ainhoa
Aizpuru zinegotziak daukate
boza.

Irakaskuntza eskaintza

Hiru gelatan taldekatuta dau-
de 29 haurrak, adinaren ara-
bera. Lehen taldea bitik lau
urte bitarteko umeek osatzen
dutena da, bigarren saila bost
urtekoek eta lehen hezkuntza-
ko aurreneko ziklokoek (6 eta

Labur-labur

- **Ingelesko eskola partikularrak** emango dira urritik au-
rrera, 4-8 urte bitarteko umeentzat, bi taldetan banatuta.
- **Txindata musika eskolak** ere jarri du abian kurtsoa. He-
rrian bertan solfeoa irakasten da, kitarra, txistua, trikitixa eta
panderoaz gain.
- **Goruntz dantza taldean** lehen aldiz hasi nahi duten 5 ur-
tetik gorako haurrentzat urrian talde berria sortuko da. La-
runbatetan 4etatik 5etara egongo dira arduradunak dantzale-
kuan, interesdunentzat xehetasunak emateko.
- **Udal liburutegia** ohiko ordutegian egongo da zabalik, la-
runbat arratsaldetan 14:30etik 16:30era. Idoia Agirre da ar-
duraduna.
- **Arantzazura erromesaldia** irailaren 28an, igandea, egin-
go da. Bezperan oinez joan nahi dutenek ere izango dute au-
kera, txangoa antolatu baita.
- **Goierriko txirrindulari itzulia** herriko errepideetan ibi-
lia da, hiru etapetan gainera, hilaren 12, 13 eta 14an. Aztiri,
Atagoiti eta Gabiriako mendateak behin eta berriz igo zituz-
ten.

7 urtekoak). Hirugarrena za-
harrenena da, 2. eta 3. ziklo-
koena, 8 urtekoetatik herriko
eskola uzten duten adinera ar-
tekoena, 11 urte arte.

Euskaraz gain, erdal hiz-
kuntzak ezagutzen 3 urtetik
hasien dira. Gaztelania eta in-
gelesa ematen zaizkie ikasgai
bezala. Horretaz gain, gimna-
sio zabala eta liburutegi opa-
roa erabiltzen ditu eskolak,
kultur etxeko baliabideei ete-
kina areagotuz.

Eskola txikien elkargoan
sartuta dagoenez, hartu-ema-
na mantentzen dute urte oso-
an zehar inguruko haurrekin,
irteerak nahiz bidaiak elka-
rrekin eginez. Donostiako
Ikertze zentrorra ere joango
dira zenbait ikasle, orain urte
batzuk hasitako esperientzia
aberasgarria dela ikusita.


Zerbitzuak

Herrigunetik aparte bizi dire-
nek jangela eta garraioa ziur-
tatuta dituzte. Ostatur baz-
kaltzen dute egunero etxera
joaten ez diren haur eta ira-
kasleek. Autobusaz gain taxia
ere jartzen zaie ibilbidetik
urrun geratzen diren eskolau-
meei. Sei lagunek erabiltzen
dute garraiobide hori.

Aurtengo kurtsorako
eguerdietako ordu libreetan
zaintzaile bat kontratatuko
da, baita ere.

Kalitatezko irakaskuntza
eta zerbitzua eskaintzeko egi-
nahalean aurrera doa, beraz,
herriko eskola. Ez baita hu-
tsaren hurrena horrelako au-
kera bertan edukitzea, bai
ikasleentzat, bai herriaren-
tzat.

Aimar Maiz



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Irailak 22:

Autorik gabeko eguna

Irailaren 22an Autorik gabeko eguna ospatuko du Beasainek. Europa mailako eguna da eta Beasainek bat egin du aldarrikapen honekin. Jose Antonio Ibaibarriaga ingurumeneko zinegotziak adierazi duenez, *"kanpaina hau zuzenean ingurumenarekin lotzen da eta beste ekimen batzuekin batera, gure bizi-kalitatea hobetzeko asmoz egingo da"*. Era honetan, *"egun horretan saiatu behar dugu garraio bide publikoak erabiltzen, oinez edo bizikletaz mugitzen, osasunaren eta ekologiarekin alde eginez, eta bizi-kalitate hobea izaten lagunduz. Utzi zure autoa garajearen egun batez gutxienez. Denok irabaziko dugu"*, gaineratu du.

Irailaren 22an, herriaren erdigunea oinezkoen gune aldarrikatuko da, *"eta saiatuko*

gara hainbat kaletan ahal den ibilgailu gutxienez mugitzen, eta horretarako, neurri batzuk hartuko ditugu", zehaztu du Ibaibarriagak. Era honetan, Kale Nagusia eta J.M. Iturriotz kaleak trafikoa iri itxita izango dira, goizeko 8etatik arratsaldeko 8etara, garraio publikoak, garajeak eta karga eta deskargarako guneak izan ezik. Kontrol lanetan arituko diren pertsonen informazioa banatuko dute.

Arratsalde partean, hitzaldia izango da Udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan. Hizlaria, Landarlan elkarteak Eduarne Huesa izango da.

Eta azkenik, egun honetako ekimenen barruan, garraio publikoaren erabilera bultzatzeko, Goierrialdeako autobus erabiltzeko bidaia bat oparituko zaie beasaindarrei.

Lazkaibar auzoko jaiak

1943ko irailaren 24an sortu ziren Lazkaibarko lehen jaiak. Aurreko festa horien 60. urteurrena ospatuko da. Irailaren 28an ospatuko dute jaiak. Eguerdiko 12etan, hildako auzotarren omeneko meza egingo da eta 14:30ean bazkaria izango dute Olaberriko Arrieta Jatetxean, Beasaingo txistulariek girotua. Auzoko helduenei egingo zaie omenaldiarekin amaituko da.

Gaztetxoei zuzendutako bi ludoteka

Beasainen haur eta gaztetxoei zuzendutako bi ludoteka daude. Berritsu euskarazko ludoteka-zerbitzua Loinatz San Martin plazako bi geletan dago eta 5 urtetik 11 urtera arteko haurrei eskaintzen zaie. Ezkiaga Auzo-etxeko euskarazko ludoteka eta aisialdi zerbitzua berriz 5 urtetik 16ra bitartekoei zuzendua da.

Ikasturtea irailaren amaieran hasiko da baina irailaren 22tik aurrera izenemate kanpaina martxan izango da. Ikasturtea irailetik ekainera bitartean luzatuko da. 3 orduko zerbitzua eskaintzen dute arratsaldero astelehenetik ostiralera eta goizez ere bai opor garaietan. Berritsu ludotekan gehienera 100 haur izango dira eta Ezkiagan 120.

Matrikula Berritsun, 2003-2004 ikasturte osorako 40 eurokoa izango da eta Ezkiagan berriz, 11 urtera artekoena 20 eurokoa eta 12-16 urteko artekoek 2 euro ordaindu beharko dute hileko.

Nekane Altuna



Antzizar kiroldegia denboraldi berria

Irailaren 11n aurkeztu zuten Antzizar kiroldegiko arduradunek udazkenetik aurrera, 2003-2004 ikasturterako kirol eskaintza. Kirola egitea bizi kalitatea delakoan, kirola egitera bultzatu nahi dituzte beasaindarrak eta oro har, goierritarak. Jarduera fisikoa eta kirola, esperientzia atsegin gisa aurkeztu nahi izan dute. *"Dagoeneko osasuna eta gorputzaren ongizatea denok bilatzen dugu eta jolasak aukera erakargarria eskaintzen digu kirola eta jarduera fisikoa praktikatzeko, gorputza eta adimena sasoian mantentzen lagunduz"*, adierazi zuen Jon Alkaiaga gerenteak.

Guztira 28 jarduera eta ikastaro antolatu dituzte udazkenetik aurrera. Berrietan berrienak, bi: Wing Chun Taichi (Jürgen Merkel da irakaslea) eta Cardio Sac Box. (Leire Zudaire izango da irakaslea). Hauek gain, adin eta pertsona guztientzako aukera ugari dago: adimen urrikoentzat programa bereziak; Fitness zentroan punta-puntako jarduerak; terapia modura bizkarreko arazoak dituztenentzako; haurdunentzako igeriketa; adinako, haur, gaztetxo eta orokorrean helduentzako ekintzak.

Kirol jarduerak ezagutzeko promozio berezia jarri du martxan Antzizar kiroldegia, irailaren 30era bitartean: jarduerak doan ezagutzeko aukera izango da. Informazioa jasotzeko, 943887900 telefono zenbakia eta www.antzizar.net web orria daude aukeran.

Ikasturte garrantzitsua

Aurpegi berria ikus zitekeen irailaren 11ko prentsaurrian: Peio Garaialde zinegotzi berria hain zuzen ere. Aisia eta kirola, azken batean bizi kalitate hobea eskura izatearren, urte amaierarako Beasaingo kirol gune berriaren proiektua amaitua egongo dela aurreratu zuen.

Adineko pertsonen eguna

Irailaren 21ean ospatuko dute herriko adineko pertsonen euren eguna. Dena den, ekintzak bezperan hasiko dira Beti Bizi eta Loinatz Txirrindulari elkarteek antolatutako txapelketekin. Goizean, 11:30etan, toka eta igel jokoak izango dira eta arratsaldean, 3:30etan, mus, tute, puntu eta seiko jokoak. 21ean izango da egun nagusia. 11:00etan meza izango da Loinatzko San Martin basilikan; 13:30ean, bazkariaren aurretik, omenaldia. Bazkalondoren, Patxi Plazaola alkatearen agurra, bezperan jokatutako jokoetako irabazleentzat sari banaketak, eta festa bukatzeko, dantzaldia Lagunak taldearekin.

Azkenik, gogoratu irailetik aurrera eskulan, dantza eta yoga tailerrak izango direla Jubilatuen etxean. Abesbatza ere bai. Izena emateko, irailaren 22tik 26ra dago aukera.

Itsasondo

Irailak 19, ostirala:

18:30ean: txupinazoa.

Ondoren, herrien arteko bigarren derbia: lehenik umeen partidua. Ondoren Itsasondo-Arama partida.

21:30ean: herri afaria.

Ondoren Zeberio eta Mañu-korta bertsolarien emanaldia eta Ordiziako Laguntasuna Errondaiaren ikuskizuna.

Irailak 20, larunbata:

11:00etan: hamaiketakoa.

Ondoren, toka txapelketa.

12:00etan: Sarriegi eta Apalategi bertsolariak.

16:00etan: haurrentzako Beitiko igoera.

18:00etan: herriko lau koادريلen arteko herri kirolak.

20:00etan: sagardo dastaketa

22:30ean: Zugan taldearen

Gudaren kontzertua eta Itsasondoko dj-ak.

Gaupasa eta disfraz gaua. disfrazetan parte hartzen dutenen artean sari bereziak

Irailak 21, igandea:

11:00etan: meza nagusia.

11:00etan: Altzagarateko igoera.

12:00etan: Altzagarateko

igoeraren amaiera eta jaitsiera herrikoia.

12:30ean: sari banaketa.

18:00etan: pelota partiduak, jubenilak eta afizionatuak.

20:00etan: patata tortila lehiaketaren hasiera.

21:00etan: patata tortila lehiaketaren amaiera.

22:00etan: azken traka. Festen amaiera.

Legorreta

Autorik gabeko eguna

Irailaren 22an izango da autorik gabeko eguna, baina gure herrian bi egun lehenago ospatuko da, 20an alegia. Larunbat honetan zehar kale nagusia ibilgailuen trafikorako itxirik egongo da eguerdiko 12etatik gaueko 10etara (Egitarrietan Panaderiraino).

Arratsaldeko 5,30etan Gyn Khana izango da herriko haurrentzat. 3 kategoria izango dira: 10 urte bitarte dituzten mutilak, 10 urtetik gorako

mutilak eta neskak. Sariak ere izango dira hiru lehenengoentzat. Hala eta guztiz ere, esku hutsik inor ez da geldituko, partehartzaile guztientzat izango baita zerbait. Ekintza honen antolakuntza eta ardura Ordiziako txirrindulari eskolarena izango da.

Arratsaldeko 6,30etan, berriaz, solomo pintxo jatea izango da Ugaro Herri Ikastetxeko Guraso Elkartearen eskutik.

Udal liburutegia

Dagoeneko ireki da udal liburutegia eta ordutegi berarekin jarraituko du: astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 5etatik 8etara bitarte.

Bada berrikuntza bat ordea: hemendik aurrera liburu eta bideoz gain, DVDak eskuratzeko aukera izango baita. Honi dagokion araudia nabarmendu beharrekoa da, nahiko zorrotza izango baita DVD filme kopuru eskasa eta erabiltzaile batzuen fundamendu kaskarra direla medio.


Gripearen aurkako txertoa


Aurtengo gripearen aurkako txertaketaren kanpaina aurreko astelehenean hasi zen, hilaren 15ean, eta urriaren 31n amaituko da. 65 urtetik gorakoentzat eta gaixo kronikoentzat izango da. Oso gomendagarria dela diote adituek.

Lagunarteko partidua

Aurreko ostiralean, hilak 12, lagunarteko futbol partidua jokatzen zuten Legorretako Areto futbol taldeak Tolosako Laskorainen aurka, eta 1 eta 0eko emaitza lortu zuten herritarrek.

Zelai Amenabarro


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

Gazta saritua Ordizian

Irailaren 5etik 14ra luzatu ziren aurtengo euskal jaiak. Egun hauetan guztietan denezik izan dugu: antzerkia, bertso saioak, herri kirolak, dantzariak, odolki lehiaketa, sukaldaritza lehiaketa, pilota partidak, kantu afaria eta nola ez, asteazkeneko eta ostiraleko peri bereziak. Eguraldia lagun jende ugari hurbildu zen irailaren 10ean ospatu zen peri berezira. Goizean goizetik erakus-mahaiak ipini, ganadua bere tokian jarri, talogileak, ardogileak, artzainak, baserritarrak eta abarrak protagonista. Eta eguerdian gazta sarituaren enkantea. Jende gehien ikuskizun honek bildu zuen. 5.100 euro ordaindu eta gero Ordizian geratu zen gazta erdia. Pottoka Tabernako Aitor Urreta eta Martinez Jatetxeko Xabier Martinez, hainbat babesleren laguntzarekin, kopuru hori eskaintzera iritsi eta danba! lehen aldiz gazta saritua Ordizian. Jakinarazi dutenez gazta laurdena bezeroen artean zozketatuko dute.

Gaztarik onena Pascual Lopez de Uralde arabarrak aurkeztutakoa izan zen. Bezeran egindako Goierriko odolki lehiaketan onena Buntuntza Auzoan dagoen Iosu Harategiak aurkeztutakoa izan zen. Sukaldaritza lehiaketan ere ordiziarrek nagusi, Larrun Arri Elkartekoek ipini zituzten jakirik gozoenak. Gaztaz gain beste hainbat sariketa ere izan ziren peri berezian, hala nola, barazkiak, fruituak, oilo eta behiak (sari-dunen izenak barnealdeko orrietan).

Bertako produktuen zozketa

Goiztiri AEK-k euskal jaietako peri berezian antolatutako bertako produktuen zozketan saritua izan den zenbakia 0.937 izan da. Honen jabeak dei dezala 943889174 zenbakira.

Oinezkoentzako zubia

Bizkaia kalea (Txakurtxulo zena) eta Nafarroa Etorbidea lotuko dituen zubiko lanak hasiak dira dagoeneko. Orain 30 urtetik gorako proiektua dugu hau. Orduan ibilgailuak igarotzeko asmoarekin egin bazen ere, hainbeste urte pasa ondoren egitasmoa burutzear dago. Orain, ordea, oinezkoentzako bakarrik izango da.

Eugenio Irastorza etxean

Ia 24 urte espainiar estatuko hainbat kartzelatan eman on-



Sarituak

Euskal jaien barruan XII. Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketako sari banaketaren ondoren, sarituak, antolatzaile eta sari banatzaileekin batera.

doren Ordizian da berriro ere Eugenio Irastorza. Zigorren hiru laurdenak aspaldi beteak bazituen ere irailaren 9a arte ez du askatasunik lortu. Iluntzean ongi etorria egin zion egun horretan herriak. Orain, lasaiago omenaldia egingo zaio irailaren 27an, larunbata. Urte hauetan guztietan bizitakoak kontatu dizkigu Eugeniok barnealdeko orrietan agertzen den elkarriketan.

III. Josetxo Imaz memoriale

10 kilometroko ibilbidea egin beharko dute Josetxo Imaz Memorialean parte hartuko duten korrikalariak. Altamira Estadioan hasi eta Ordizia, Beasain eta Lazkao igaroko den ibilbidea eginda Altamiran amaituko da lasterketa. Irailaren 28an, igandea, jokatuko da III. edizio hau eta helduentzat proba goizeko 10,30etan hasiko da.

Gaztetxoenek ere izango dute korri egiteko aukera. Hauek ikastetxean eman beharko dute izena eta goizeko 9,30etan hasiko dira. Helduek Vicuña Sport edota Lazkao, Ataun, Idiazabal eta Beasaingo Kiroldagietan eman beharko dute aurrez izena (5 euro) edota 28an bertan Majorin (7 euro). Txindoki Atletismo Taldekoek emakumezkoek egin diete bereziki parte hartzeko deia. Aurreko bi edizioetan gutxi izan ziren, antza. Lasterketa hasi aurretik otsailean auto istripu baten ondorioz utzi gintuzten 'Txato' Caballero eta Irantzu Egiguren omenduko dira.

Aitor Calvillo

Euskara ikasteagatik dirulaguntza

2002ko irailetik 2003ko abuztura bitartean, edozein mailako euskalduntze-alfabetatze ikasketak egin dituzten 16 urtez goitiko ordiziar guztiek dirulaguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte udaletxeko Euskara Sailean.

Udalak matrikula kostuaren %60a itzuliko die langabetu nahiz ikasten ari eta 150 ordutik gorako ikastaroa egin dutenei. Ikastaroa ordu kopuru hori baino gutxiagokoa izan bada, berriz, %40a. Lanean aritu eta euskara ikasten aritu direnentzat ere bada laguntzarik, matrikularen %20a hain zuzen. Horrez gain, 0-6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei matrikularen %75a itzuliko zaie. Baita merkatariei ere.

Dirulaguntza jasotzeko baldintzak hauek bete behar dira: Ordiziako erroldan urte betez izena emanda egotea, eskola asistentzia %85ekoa izatea gutxienez eta beste inolako laguntzarik ez jasotzea. Udaletxean bertan bete eskaera orria eta dagozkizun agiriak aurkeztu, hau da, langabetu txartela edo ikasle ziurtagiria, matrikula ordaindu dela ziurtatzen duen aurrezki kutzako agiria, nortasun agiriaren kopia, norberaren kontu korronte zenbakia eta euskaltegiko aprobetxamendu orria.

San Migel inguruko ospakizunak

Esparru-03 erromeria

Irailak 20. Arratsaldeko 7etatik aurrera emango zaio hasiera urtero egiten den ospakizun honi. Buruhandiak izango ditugu herrian zehar herriko txarangak lagundua. Jarraian, poteo-herrikoia izango da txarangarekin.

Irailak 21. Goizeko 9etan: Ikurrinaren-jasoera izango da mendi tontorrean.

11:30ean: Haur-jolasak, herri-kirolak, trikitixa, bertsolariak, bazkari-herrikoia, dantza saioak...eta abar izango dira. **18:00etan:** Ikurrinaren jaitsiera izango da eta honekin batera herrira. Trikitixak emango dio amaiera ekitaldi honi.

Oharra: Hurrengo batean garbi ikusi nahi badugu Esparru mendi edo ingurugunea, saiatu garbi mantentzen.

Hainbat ekitaldi

Irailak 24: Pello Joxe Aranburu idazleak, Lazkaoko bi

jauregitako XXI. belaunaldi-ko apunte historikoak. 1335-1919, liburuaren aurkezpena izango da Kultur-etxean, arratsaldeko 7etan.

Irailak 26: Areto futboleko partiduak jokatu dira. Herriko plazan, berriz, XI.sagardo dastaketa izango da.

Irailak 27: Arratsaldean buruhandiak Antzar-gazteak txarangarekin.

Irailak 28: Dantzari-txiki eguna eta Pilota-partiduak jokatu dira, finalak, hain zuzen ere.

Irailak 29, astelehena: San Migel eguna

12:00etan: Jubilatuen meza nagusia eta bazkaria Bittorrenean. Umeek berriz plazan jokoak izango dituzte, puzgarriak...eta abar.

21:00etan: herri-afaria. Eguna bukatzeko Drindots taldeak joko du goizalderarte.

Aitor Tello

Kultur Etxeko ikastaroak 2003-2004

Urritik ekainera bitartean egingo diren ikasturteak honako hauek izango dira:

Tiffany's eta beruneztatze artistiko ikastaroa. Tiffanyaren teknika landuko da eta bereziki; bidriera diseinua, beira nola moztu, kristala nola leundu, soldadura, patinak eta garbiketa. Ostiralean, 17:00etatik 19:00etara.

Altzarien zaharberritzea. Hauen azterketa, egur mota, beraien ezaugarriak, koloreak, betak, tintaketa, barnizak...ikasiko dira. Ostiralean: 19:00etatik 21:00etara.

Oleoa. Oleo teknikan margotzen ikasi eta zure trebetasuna sakontzeko aukera izango duzu. Oleo pintura, pigmentuak eta aglutinanteak, pintzelak, euskarriak: tablexa, bastidorea, diluitzaileak, disolbenteak, paisajeak...Hau ostegunetan: 19:00etatik 21:00etara.

Egur taila. Ikastaro honetan egur mota desberdinak, honen tratamendua eta bera landuz lehenengo apaingarri txikiak eta gero handiak egiten ikasiko duzu. Baita lanketa honetan garrantzizkoak diren egur beta, egur mota, dentsitate, erresistentzia, lanabesen zainketa, tinteak eta akaberak landuko dituzu. Ostiralean. 15:00etatik 18:00etara.

Eskulanak. Eskulanen alorra hain zabala izanik, ikasturteko gelako ikasleekin adostasunean, aztergai izan daitezkeen gai batzuk aukeratu dira, besteak beste, apainketarako alorra, egurraren lanketa, metalak, pastak, eskaiola eta marmolina, tela eta seta, urreztatzea... Astearteetan: 17:00etatik 19:00etara.

Haurrentzako sormen garapena (4-8 urte). Formak, koloreak, paper-kartoiak, lanak, moztu, itsatsi, collage, papera eta kartoia, gorputz espresioa, abalorioak, arkatzak, argizariak, klarionak, gouache margoak... Ostiralean 17:00etatik 19:00etara.

Informazio gehiago nahi izanez gero Lazkaoko Udaletxean galdetu. 943-80.54.11 (Miren)

Futbola

Erregionalek larunbatean emango die hasiera denboraldiari. Tolosako Amaroitz taldearen aurka jokatu dute Arizti-Haundi futbol-zelaian.



**Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa**

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA



ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN



**UNTUNDEI
garajea
OSINALDE
karrozategia**

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



Urriak 5 gainean:

Lazkao Kilometroak 2003 hartzeko prest

Gipuzkoako Ikastolen urteroko jaia Lazkaon ospatuko da aurten.

Urte osoa daramate San Benito Ikastolakoek eta lazkaotarrek urriaren Seko eguna antolatzen. Azken txanpan sartuta dauden honetan, egun horretan lan egingo duten lagunak bildu nahi dituzte antolatzaileek. Egitaraua ere prest dago baina hori hurrengo alean azalduko dugu.

'Euskara bizi nahi dut' le-mapean ospatuko da aurtengo Kilometroak jaia. Goizeko 9,30etan, San Benito ikastolako eraikuntzan 7. gunean, hasiko da Kilometroak 2003 festa. Euskararen eta ikastolen jaia.

9 kilometroko ibilbidea

Lazkaon barrena, 9 kilometroko ibilbidea prestatu da. (Hurrengo orrian duzue krokisa). Bertan, 7 gune kokatu-ko dira: Goierri Lanbide Es-



Lazkaomendin bi gune prestatuko dira: Iztuetan eta Pipasenean.

kolan, Oianguren Natur Parkean, Lazkaomendin Pipas tabernan eta Iztueta base-rrian, Orobionen, Gurutzen eta herriko plazan. Gune guztietan ohiko zerbitzuak eskainiko dira: diru trukeak, edariak, otartekoak, osasun guneak, komunak...

7. gunea izango da jantokien gunea. Bi bazkari mota prestatuko dituzte: paella erraldoia eta sagardotegiko menua.

Trafikoa

Egun honetan trafikoa izaten da arazorik nagusienetarikoa bat. Beasaingo sarrerak itxita

egongo da, Lazkaoko saihesbidea ere bai. Nafarroara edo Atauna joateko, Olaberri-ko joan beharko da.

Aparkalekuak

Hiru aparkaleku gune handi prestatuko dira: P1 deitua izan dena, Beasaingo Kilometroak egunean erabili zena: Indar, Olaberri, Carrefour, Aldanondo Bulkanizatueta-raino artekoa. P2, Bikain al-tzariak, Garaje Modernoa... ingurua. Bi aparkaleku haue-tatik autobusak egongo dira Senpereko sarreraraino. Itzu-lerako autobusa ere bertan hartuko da. Eta azkenik, P3

aparkalekua, Lizarrusti alde-tik datozenentzat, Zubierre-kan.

Trenaren erabilpena

Dena den, horrelako egune-tan ohikoa bihurtzen ari den bezala, tren erabiltzeko deia egiten dute antolatzaileek. Beasaingo tren geltokian jai-tsi eta bertan Senpereko sa-rreraraino bideratuko dira Ki-lometroak jaira datozenak.

Lanerako prest

Lanerako prest dagoen jendea pilotzea da antolatzaileen bu-ruhausterik handienetakoa. Horrelako ekitaldi bat antola-tzeko jende kopuru handia behar izaten baita. Adibidez, txosnetarako 300 lagun be-harko dira; garbitasunerako 180, ekonomiarako 50, trafi-korako 40, segurtasunerako 60... Azkeneko 15 egunetan egingo dituzte muntaia lanak. Boluntarioei deia egiten die antolatzaileek, lanerako prest daudenak, goizean plazara azaldu eta laguntzeko.



TAPIA

TELEKOMUNIKAZIOAK eta
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Enpresa baimendua

- Kiroldegi - Eskola - Etxebizitza eta indutirako instalazioak
- Automatismoak - Kontrolak - Mantenimenduak

Ibabe Industrialdea, 21
☎ 943 88 95 94
LAZKAO

TMEB



Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak

- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 **LAZKAO**

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



Ibilbidea



OSKARBI

ARROPA
GARBITEGIA

Arropa industrial mota guztiak

Ostalaritza

Bezzeroaren instalazioetan bilketa eta entrega

Partikularrentzat mantak, edredoiak, buzoak...

Leku-Eder etxea- Senpere auzoa-Lazkao

Tel.: 943 88 40 90 - 669 872 261

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak

Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1- beheia

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO



Zubi termiko hausturak
leihoak

Bulego eta bainuetako
manparak


Ateak, erakusleihoak eta
balkoiak

GEURIA
ALUMINIO AROZTEGIA

943 880 162
Iñauti Ind. 14
OLABERRIA



Iraileko kultur egitaraua bete-betea



Benito Lertxundiren kantaldia

Hil honen 27an eta gaueko 10,30etan Benito Lertxundiren kantaldia izango da herriko plazan. Kantaldi berezia den aldetik, karpa bat jarriko da enparantzan bertan ekitaldia eguraldiak behinik behin honda ez dezan. Lazkaon aspaldiko urteotan kantari izan ez dugun abeslari oriotarraren ahots ez-tia entzuteko abagune paregabea izango dugu eta honekin batera, hainbat kantu gogoratzeko aukera izango dugu.

Kilometroak 2003 iristear dugun garai honetan kultur hamabostaldi paregabea dugu Lazkaon. Aipatzen hasita, ezin uka dezakegu aukera ezin hobe dela zernahi ikus-

teko eta entzuteko. Begiak gozatzeaz gain, belarriak bigundu ere egingo baitzaizkigu antolaturiko hamabostaldian.

'Goierriin euskaraz bizi nahi dut' zozketa

Goierriko merkatarien artean 'Goierriin euskaraz bizi nahi dut' lelopean burututako zozketa dagoeneko ezaguna da guztion artean. Gogora dezagun, Goierriko merkatarien eta tabernarien artean egin den ekimena dela honako hau. Lazkaon Kilometroak 03 egunean, urriaren 5ean alegia, udal-txe-azpian tonbola bat izango dugu eta tonbola hau sariz hornitzeko ezinbestekoa dugu Goierri osoko merkatarien laguntza. Ekarpena egin dutenei esker onaren seinale 'Hemen Kmk/03 lagun' pegatina ez ezik, beren dendan bezeroen artean banatzeko boletto batzuk eman zaizkie. Esandako boletto hauen zozketaren emaitzak, beraz ondoko lerrootan jakinarazi nahi dizuegu. Aldez aurretik, mila esker Goierriko merkatari eta tabernari guztioi.

Nekazal Turismo etxeetan egonaldiak

009372 / 070648 / 117084 / 131294

La Perla talasoterapia zentrurako sarrerak

008270 / 020100 / 093605 / 144736

* Saria hilabeteko epean jaso beharko da (2003-10-19)

* Kontakturako telefonoa: 943 80 53 82 KMK'03ko bulegoa

Beneditarren etxeko erakusketa aretoan irekita dagoen 'Euskal liburu zaharren erakusketa' aipatu behar dugu. Urriaren 3a arteko egunean izango dugu zabalik astelehenetik ostiralera arratsaldeko 5etatik 7ak bitartean. Bisita gidatuentzako beste ordutegi bat izango da, goizeko 10etatik eguerdiko 12,30ak arte hain zuzen.

Irailaren 22tik urriaren 5era beste erakusketa bat ere izango dugu 'Kilometroak 2003 arte erakusketa'. Berau udaletxeko erakusketa aretoan izango dugu ikusgai; ordutegiari dagokionez, arras

malgua izango da astelehene-tik igandera.

Urriaren 2an, osteguna, eta iluntzeko 9etan Dionisio Amundarainek hitzaldia eskainiko du Maizpideko zinema aretoan. Mintzaldiaren gaia honako hau izango da: 'Lazkaoko euskalgintzaren laiariak: Beneditarrak, ikastola, Euskal Eskola, Maizpide'. Zalantzarik ez dago, Dionisio Amundarainek ondo baino hobeto eza-gutzen duen mundua dela euskalgintzarena eta inork ere ez dezagun ahaztu gu guztio-na ere badela.



IRUDI - Foto, S.L.

Javier Fernández Sánchez

Erroilu bat **doan** negabibo errebelatu bakoitzarekin

Argazki zaharren retoke digitala

San Inazio kalea, z/g BEASAIN

Tel./Faxa: 943 888 100

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN

Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

EUSKAL HERRIKO HEGAZTIEN

2. eguna

2003ko irailak 28

SEGURA

EGITARAUA

11:00etan:

- Euskal Antzararen erakusketa
- Euskal Oiloaren erakusketa
- Emuak, faisai, ahate eta beste hegaztien erakusketa
- Oilo eta hegaztien produktuak ikusgai eta salgai

EUSKAL ANTZARA

EUSKAL OILOA

Zatoz Segurara!!!



SEGURA UDALA

O n d o p a s a S a n m i g e l a k !

MANUEL-ENEA TABERNA

Elosegi, 5 ☎ 943 88 20 29



OROBIONE TABERNA

DORRAO TXIKI TABERNA

ITZALA TABERNA

Tfnoa.: 943 88 25 28
Jose Lasa, 1
LAZKAO

GERRIKO TABERNA

Pintxoak
Ogitartekoak

Elosegi, 16 ☎ 943 88 99 43

GIROA TABERNA

*Pintxo ederrak
jateko aukera*

Areso, 6 ☎ 943 88 77 40

ANSOATEGI HERRIKOA



Elosegi, 15 ☎

943 88 68 52

KIROLDEGI TABERNA

*Eguneroko menua,
Pintxoak eta bokatak*

☎ 943 16 19 66

GURUTZE TABERNA

SANMIGELETAN
PINTXOAK ETA BOKATAK

GURUTZE 1

ESTANKO TABERNA

Tel.: 943 88 02 33
Elosegi, 17

ZELATA TABERNA

Uhaitz 1



TABERNA

Uhaitz, 2 LAZKAO

zinea

BEASAIN:

Urriak 2, Goieniz: 'Cidade de deus', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

dantza

LAZKAO:

Irailak 28, Dantzari Txiki eguna.

hitzaldiak

LAZKAO:

Urriak 2, Dionisio Amundarainen hitzaLdia Maizpideko zinema aretoan, 21:00etan. Gaia: 'Lazkaoko euskalgintzaren laiariak: Beneditarrak, ikastola, Euskal Eskola, Maizpide'.

pailazoak

GAINTZA:

Irailak 27, Patxin eta Patxin, 17:30ean.

bertsoak

ALTZAGA:

Irailak 27, Bertso trama. Bertsolariak, Igor Elorza, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina eta Amets Arzallus. Tramagilea, Josu Goikoe-txea. 22:00etan, pilotalekuan.

GAINTZA:

Irailak 29, Imanol Lazkano eta Aitor Mendiluzerekin herri bazkaria, 14:00etan.

IDIAZABAL:

Irailak 27, Urtsuaranen, Azpillaga eta Narbaiza, 13:00etan eta arratsaldean.

Irailak 28, Urtsuaranen, Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberiorekin bazkaria, 14:00etan.

ITSASONDO:

Irailak 19, Zeberio eta Mañukorta, afalondoren.

Irailak 20, Aitor Sarriegi eta Iñaki Apalategi, 12:00etan.

musika

GAINTZA:

Irailak 26, Ansorregi taldea, 22:30ean.

Irailak 27, Epelde eta Larranaga, 19:30ean, goizalde-arte.

Irailak 28, Laja eta bere taldea trikitilariak egunean zehar.

ITSASONDO:

Irailak 20, Zugan, Guda eta Itsasondoko dj-ak, 22:30ean.

LAZKAO:

Irailak 27, Benito Lertxundi, 22:30ean, herriko plazan. Antolatzailea: Kilometroak 2003.

Irailak 29, Drindots taldea, plazan.

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 26tik aurrera, Buztina zeramika zaletuen elkar-teen egindako lanen erakus-keta, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

LAZKAO:

Urriaren 3ra bitartean, 'Euskal liburu zaharren erakusketak', Beneditarren etxeko erakusketa aretoan. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 5etatik 7etara. Bisita gidatuentzako, goizeko 10etatik 12,30etara.

Irailaren 22tik urriaren 5era bitartean, 'Kilometroak 2003 arte erakusketa', udaletxeko erakusketa aretoan.

ORDIZIA:

Irailaren 25era arte, Jorge Rodriguez Almanza argazkilaria-aren erakusketa, Barrenan.

mendi irteerak

BEASAIN:

Irailak 21, Besaidera. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale elkarte.

ORDIZIA:

Irailak 21, Besaidera. Antolatzailea: Ordiziako Mendizaleak.

Irailak 27, Artzamendi-Bidarrai. Antolatzailea: Ordiziako Mendizaleak.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



IKASTEK AKADEMIA 2003-2004 IKASTURTEA

Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalek zuzendua.

ESKOLA LAGUNTZA

- * Gai eta maila guztiak
- * Lehen hezkuntza, DBH
- * Batxilergoa
- * Moduluko, Zikloak
- * Unibertsitate-maila

IKASKETA ARAZOAK

- * Errendimendua
- * Atentzioa
- * Ohiturak
- * Metodoak
- * Emozioen kontrola

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- * Marrazketa teknika
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

Joan Iturralde, 5

BEASAIN

☎ 943 160 120

www.ikastek.net



Itoizeko solidarioekin elkartasuna Pikuondo etxean

Irailaren 26an, Itoizeko solidarioekiko elkartasun eguna ospatuko dute Beasaingo Pikuondo etxe okupatuan. Prestatu duten egitaraua ondorengoa da:

19:00etan: 'Desalojos de pueblos y futuro de la resistencia en el valle del Irati'.

Ondoren: 'Resistencia en Itoiz' bideo emanaldia.

22:00etan: kontzertua: Astopituak (Iruña), Hurto (Lakabe) eta Sobredosis de mistol (Beasain). Sarrera: 3 euro. Bertan biltzen den dirua, Itoizeko solidarioentzako izango da.

Informatika ikataroa emakumezko langabeentzat

Urriaren 21etik azaroaren 18ra, informatika ikastaroa eskainiko da Goierri Lanbide Eskolan. 52 orduko ikastaroan, word, internet eta windows ikasiko dira besteak beste. Interneteko ikastaroren bat Emaweb, Kzguna edo Egailanen egindako emakumezko langabetuei zuzendua dago. Ordutegia: 9:00etatik 11:30era eta 15:00etatik 17:30era. Gipuzkoako Foru Aldundiak, FSEk eta Euskadiko Kutzak antolatu dute ikastaroa.

Izena emateko edo informazio gehiagorako, Goierriko Lanbidera Eskolara jo behar da eta Begoñagatik galdetu (94388062-66).

Goieniz zine klubaren ziklo berria urriaren 2tik aurrera

Urriaren 2tik abenduaren 11ra bitartean izango da Goieniz zine klubaren ziklo berria. 8 filmek osatuko dute zikloa. Ostegunetan, Beasaingo Usurbe antzokian izango dira emanaldiak. Ohi bezala, abonoak aurrez salgai egongo dira.

Urriak 2: 'Cidade de deus' (Fernando Meirelles eta Katia Lund).

Urriak 9: 'Balzac y la joven costurera china' (Sijie Doi).

Urriak 23: 'Mi vida sin mi' (Isabel Coixet).

Azaroak 6: 'Historias minimas' (Carlos Sorin).

Azaroak 13: 'Sweet sixteen' (Ken Loach).

Azaroak 27: 'Marie-jo y sus dos amores' (Robert Guedigu-lan).

Abenduak 4: 'La bici de Ghislain Lambert' (Philippe Harel).

Abenduak 11: 'Bloody Sunday' (Paul Greengrass).



GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Jauregi
(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Irailak 20-21: Urbizu
(Nafarroa etorbidea, 8 - Beasain). 943 880232.

Irailak 27-28: Atorrasagasti
(Gipuzkoa kalea, 15 - Ordizia). 943 882938.



2003-2004 KIROL EKINTZAK



BALLET-a
GIMNASIA ERRITMIKOA
AEROBIC-a
MANTENU GIMNASIA LEUNA
(3. adina)

Ordutegi
aukera
zabala!

MANTENU GIMNASIA
EUSKAL DANTZAK
IGERIKETA
JUDO-a

☎ 943 88 93 33

ORDIZIA

☎ 943 88 93 53

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

erosi

➔ Zaldibian etxebizitza erosiko nuke. 605743796. 18:00etatik aurrera deitu.

salgai

➔ Etxebizitza salgai Lazkao erdigunean. 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Dena kanpoaldera begira. 679359740 - 630112637.

➔ Beasaingo erdigunean pisu polita eta egokitua salgai. 90 m². 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta trastalekua. Garajearekin edo gabe. Bista zoragarriak. 619022340.

➔ Etxebizitza salgai Ordizian, garajearekin. Guztiz berritua eta altzari batzuekin. 626292276.

➔ Zegamako erdigunean 80 m²ko pisua salgai. Oso eguzkitsua. 699846417.

➔ Zegaman 130 m²ko pisua salgai. 943422897.

➔ Donostiako Alde Zaharrean, Bretxa ondoan, pisua salgai. 2-3 logela, egongela eta sukalde handiak. 2. solairua. 943431250. 39.800.000 pezeta.

errentan eman

➔ Pisu berria alokatzen da Ordizian. 653011954.

➔ Benidormen apartamentua alokatzen da. Aire egokitua, igerilekua eta garajearekin. 943801107. Joxe.

elkarbanatu

➔ Beasain eta inguru-ko herrietan pisu bat elkarbanatuko nuke gus-tura. Iker. 680621163.

➔ Iruñean irailetik aurrera, elkarbanatzeko pisu bila nabil. Eli. 680519482.

➔ Salamancan bi pertsona behar dira alokatutako pisua osatzeko. 943027818. Amaia.

Lursaila

erosi

➔ Zelai ordeka bat erosiko nuke Goierrin. 5.000 m² inguru. 10 edo 15 milioi pezeta ordainduko nituzke. 649552369.

Garajeak lokalak

errentan eman

➔ 250 m²ko bi pisuko lokala alokatzen da. Dena ekipatua. 669340218.

➔ 100 m²-ko etxabea alokatzen da Olaberrian. N-I errepidearen ondoan. Biltegirako oso egokia. 943160927.

Animaliak

salgai

➔ Setter ingles arrazako 4 txakurkume eme salgai. Pedegree oso onarekin. 660696808 (Igor).

➔ Bi behor salgai, zelabere gisa erabiltzeko. Zaldi arabiar batekin gurutzatuak. Bat haurrentzako ezin hobea. 629528736.

➔ Euskal pottokak salgai. 943161828.

➔ Spaniel arrazako txakurkumeak salgai. 943160919 - 659843036.

➔ Setter arrazako bi txakur salgai. Bat 5 urtekoa eta bestea 6koa. 943160015.

Ibilgailuak

salgai

➔ Opel Astra autoa salgai. SS-AP. Egoera oso onean. 605766110.

➔ Seat Ibiza 1.9 D salgai. NA-AP. Oso ondo zaindua. 90.000 km. 699767195. Edurne.

➔ Peugeot 405 autoa salgai. SS-AG. 943887041 - 943160926.

➔ Vespa motorra salgai. Oso egoera onean. 1.000 euro. 656723688.

➔ 1992ko Honda CR-125a salgai. 1.700 euro. 606206157.

➔ 49cm³-ko scooterra salgai. Benilli 491 RR markakoa. 3 urte. Ondo zaindua. 7.000 km. 1.100 euro. 635706569.

➔ Golf Sprinter salgai. SS-AD. Oso merke eta kilometro gutxi. 943085584. Mikel.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Ellosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

iB&i-ONDO AROZTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Bestelakoak

salgai

➔ Mercedes Vito baten atzeko 3 eserlekuak saltzen ditut. Erabili ga-beak. Prezio interesgarria. 16:00etatik aurrera deitu. 609030621.

➔ Mitsubishi Montero modelo berriaren 3.2 DID defentsa orijinala eta homologatua salgai. Berria eta estreinatu ga-bea. 943880675.

➔ Premier markako bateria salgai. 943180183.

➔ Umeentzako egurrezko sehaska salgai. 5 urtera arte balio du. Oso egoera onean. 670422051.

➔ Haurrentzako motxila (estreinatu gabea) eta sehaska (handia) salgai, 125 eurotan. 656723688.

➔ Egongelako altzariak salgai: armairua, mahai txikia, 3 plazako sofa bat eta plaza baka-rreko bi sofa. Prezio ne-goziagarria. 943085147. 22:30etik aurrera deitu.

➔ Olaberriko Etxe-Zuri sagardotegia alo-kairuan eskaintzen da, jubilaziogatik. 943882049.

Lana

eskaintzak

➔ Neska gazte bat eskaintzen da haurrak zaintzeko edota dendari bezala lan egiteko. Esperientziaduna eta arduratsua. 625703527.

➔ Beasaingo neska euskalduna prest dago irailetik aurrera arratsaldeetan umeak zaindu edo tabernan lan egiteko. 600831943.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 670517864.

➔ Ordiziako emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko. 943084046.

➔ Irailetik aurrera edozertan lan egiteko neska eskaintzen da. 645718372.

eskaerak

➔ Neska edo emakume euskalduna behar da Beasainen, 4 urteko haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943085602 - 656777471.

➔ Taberna batean lan egiteko zerbitzaria behar da. 943889848.

➔ Beasainen neska euskalduna behar da 5 urteko haurra zaindu eta etxeko lanak egin laguntzeko. 943881302.

➔ Pertsona bat behar da ileapaindegi batean lan egiteko. 639962850.

➔ Irakasle partikularra behar da DBH 4. ikas-turteko ikasle bati klaseak emateko, Idiabalen. azeri943@hotmail.com

➔ Gaintzan neska bat behar da, arratsaldez, haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943087454. 13:00etatik 15:00etara deitu.

➔ Pertsona bat behar da 6 urteko haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 615701292 - 943027632.

➔ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. Astebukaeretan edo astean zehar. 605772623.

➔ Baxujolea behar da rock taldea osatzeko. Goierri ingurukoa. Gogo eta inizatiba duen pertsona (esperientziaduna ahal bada). 635724660. Aitzol.

➔ Zerbitzaria behar da Beasaingo Basakana tabernan, asteburuetakoko. 943882023.

➔ Neska bat behar da tabernarako. Esperientziaduna. 943887197.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

SOLDATZAILEA

Goierri. Erref. 108596/1

MAKINAKO LANGILEA

Tolosan. Erref. 108445/2

HAURRAK ZAINTEKO PERTSONA

Tolosaldean. Erref. 108418/2

PAPER MANIPULATZAILEA PEOIA

Tolosaldean. Erref. 108365/2

SOLDATZAILE-DELINEATZAILEA

Beasainen. Erref. 108230/1

3 DENDARI

Tolosan. Erref. 108224/1

SUKALDARI LAGUNTZAILEA

Tolosaldean. Erref. 108166/3

DUE / ATS 1

Goierri. Erref. 108046/1

TABERNAKO ZERBITZARIA

Tolosan. Erref. 108040/1

4 HORNITZAILE

Goierri. Erref. 108039/1

INGENIARI TEKNIKO ELEKTRIKOA

Altsasun. Erref. 107998/1

ARRAIN SALTZAILEA

Goierri. Erref. 106889/4

GOI INGENIARI / INGENIARI TEKNIKO

Goierri. Erref. 106886/4

ONTZI GARBITZAILEA

Tolosaldean. Erref. 106442/2



SASIETA MANKOMUNITATEA
www.sasieta.net Martina Maiz, 3 behea - BEASAIN - Tel.: 943 16 15 55





Beasaingo dantza eta musika Polonian

Beasaingo Aurtzaka dantza taldeko eta Akordeoi orkestrako dantzari eta musikariak Polonian izan ziren 1984ko udan. Argazkian, tartean, poloniarrek azaltzen dira.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.

GERTU abokatuak



- ▶ AHOLKULARITZA JURIDIKOA
- ▶ ENPRESA ZERBITZUAK
- ▶ ASEGURUAK

BEASAIN Kale Nagusia, 2
gertu.asesoria@terra.es Telf: 943 16 21 92
www.gertuasesores.com Faxa: 943 88 36 33

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea

Eguneroko menua eguerdi eta gauetan larunbatetan ere bai	Afariak bataioak jaunartzeak
--	------------------------------------

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

 **Iñausti**
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

OBRA PROIEKTUAK

Etxe berriak eraikitzeko
Birmoldaketak
Aktibitateak
Hirigintza

LDA arkitektura 649 95 94 14
GOIERI ETA TOLOSALDEAN

PSIKOLOGI KLINIKOA

 **ARGL**

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN


URBITARTE
tolare
sagardotegia



Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN

Zure seme-alabak...
Irakurtzeko edo idazteko zailtasunak baditu; hizkuntzaren
garapen edo agertzearen atzerapena badu; ahotsik gabe
gelditzen bada; edo janariak mastikatze edo tragatzeko
edo arnasa hartzeko arazoak baditu...

Mintzaera, berba eta ahotsaren gorabeheren
tratamendua, diagnostikoa eta prebentzioa

 **ahots** Logopedia

Nagusia 2 1ºEsk. 20200 Beasain Tfnoa 605 71 69 15 - 655 73 67 35



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:

Lorategiko eta terrazako altzariak, kolore ezberdinetako aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
toldosagustin.com

LAZKAO

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

U d a z k e n e k o
p r o m o z i o a

Irailaren 15etik 30era, Antzizar

kiroldegiko edozein

ikastarotan froga DOAN

egiteko aukera duzu


eta gainera, honako lharduera
berriak prestatu dizkizugu:



Wing chun tai chi eta cardio sac box

ANTZIZAR
KIROLARITUTAI ERKUMINDIA

K I R O L Z A L E S U T S U A K



Pilotan norgehiagoka lagun artean?
Asteroako futbol saioa? Taldeko iharduerak
lagunduta, laneko kutxuak botatz? Eta masai
pixka bat? Zeuk aukeratu, Antzizar-
ek zeure neurriko aukera bait du

www.antzizar.net
tel.943 887900



ANTZIZAR KIROLDEGIKO BARRNE KIROLAK